

GUaiXE.net



Zabaletak **41/2an** debutatuko du igandean



Kirolak >> **11**

Urbasako Igoeran **bi pilotu sakandar 10 onenen artean** sailkatu ziren. Pantxo Egozkue izan zen **portuan gora azkarrena**



Kirolak >> **13**



Txistor gosez

>> **5**

Arbizuko eskolakoek eta ikastolakoek atzo talo eta txistor tailerlean parte hartu zuten, Txistor egunaren aurreratutako ekitaldian.

Ohitura izan edo ez, badago norekin euskaraz hitz egin

Mintzakide programak zortzigarren urtez euskaraz aritzen direnak eta aritu nahi dutenak elkartuko ditu

>> **3**

Emilio Iguzkiza oroitarazteko omenaldia Altsasun

Iganderako antolatu du Altsasu Memoriak ekitaldia. 80 urte bete dira Guardia Civil baten tiroz hil zela

>> **9**

Nazabal bederatzitan Nafarroako txapeldun

Euskal Herrikoan ez da lehiatuko

>> **11**



Euskararen aldeko lip-duba Uhartan >> **9**



Arakildarrek dokumentalari harrera ona >> **7**



Ihabarko antzerki taldea eszenara >> **15**



Ziza eta landare bete frontoi, etzi, Etxarrin >> **6**

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

GURE
REMOVE
PLANA

%20^{ra}
arteko
deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Asier eta Mattin
ZORIONAK eta mu-xu pila bikote!!!! Etxe-koen partez.



Yaritza
ZORIONAK! Zure irri-farrari esker bizitza alaiagoa da, ez aldatu. Muxuak.



Izaro
ZORIONAK potxola!! 5 urte dagoeneko!! Uff, zeinen handia!! Mila muxu etxekoen partez.



Amets
Zure lehenengo hilabeteen, izugarriko indarra eta maitasuna. Amona eta osaba-izeben partez, Mari, Mario eta Ainhoa. ZORIONAK ama eta aitarendako.

lastailak

10-16

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Vendetta, Alerta Gorria eta DJ Sergei. Lastailaren 11n, larunbatean, 23:00etan Bakaikuko elkartearen.

Antzerkia

El pleito de Areusa o gallina vieja hace buen caldo. Lastailaren 10ean, ostiralean, 21:30ean Irurtzungo kultur etxean. **La nave & Limboescena.**

Una aventura en la basura. Lastailaren 11an, larunbatean, 20:00etan Ihabarko plazan. **Ihabarko antzerki taldea.**

Zinema

El niño. Lastailaren 10ean, ostiralean, 22:00etan eta lastailaren 12an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Cómo entrenar a tu dragón 2. Lastailaren 12an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Mendi irteerak

Belate-Berute. Lastailaren 12an, igandean, 7:00etan Irurtzundik. **Sakanako Mendizaleak.**

Bizikleta irteerak

Baizako gaina. Lastailaren 12an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:50ean Biotza kanpinetik. 47 km. **Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Ziza eta landare erakusketa. Lastailaren 12an, igandean, 10:00etatik 17:30era arte Etxarri Aranazko frontoian.

Dekoratzaila arteak. Lastailaren 10era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. Yolanda Arnedoren tailerra.



Gure sustraiak ardazten. Lastailaren 26ra arte, Altsasuko Basoko Mari dendan. Paz Treuquill maputxearen margoak.

Ziordiko liburutegiko azken 15 urteetako ekintzak. Abenduaren 29ra arte, astegunetan, 16:00etatik 20:00etara Ziordiko liburutegian.

Bestelakoak

Uharten euskaraz bizi nahi dut. **Lipdub grabazioa.** Lastailaren 11n, larunbatean, 10:30ean Uharte Arakilen.

Gaztetxoko denboraldi hasierako festa: afaia eta DJ Sergei. Lastailaren 11n, larunbatean 21:30etik aurrera Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Poker txapelketa. Lastailaren 12an, domekan, 17:00etatik aurrera Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Lastailaren 10ean, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta

Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Errausketaren kontra, osasunaren alde. Lastailaren 11n, larunbatean, 12:00etan Altsasuko Iortia kultur gune parean. **3MB plataforma.**

Emilio Eguskizari omenaldia. Lastailaren 12an, domekan, 13:00etan Altsasuko Gartzia Ximenez kalean. Altsasu Memoria.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Lastailaren 12an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Bazkideek
deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

107.3 FM
beleixe online
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:
albisteak, kirolak,
Txistor Eguna, Arakilgo Haizearen
aurkezpena, Altsasuko frankismoko
biktimei omenaldia...

Esataria: Eneida

SAKANA

Badago norekin euskaraz hitz egin!

Zortzigarren urtez Mintzakide programa martxan jarriko da. Euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta ez dutenak elkartzen ditu programak

Edozein hizkuntza ikasterakoan bezala, euskara ikasterakoan ere ezin bazterrean utzi ikasitako praktikak. Hau da, euskaraz hitz egitea. Bada jendea inguruan euskaldunak ez duenik edo haiekin euskaraz hasteak lotsa edo ohi-tura zaharra haustea suposatzen diona. Mintzakide programak euskara praktikatu nahi duena badakien jendearekin jartzen du harremanetan, talde txikitara lasai asko hitz egin dezaten.

Sakanako Mintzakide programa Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak diruz laguntzen du eta Sakanako AEK-k koordinatzen du. Joan den urtean ari-

tutako zazpi talde, atzera ere, martxan daude. Haietan dagoeneko 40 mintzakide sakandar baino gehiago ari dira euskaraz hitz egiteko astean behin ordu bateko zita jartzen. Irurtzunen, Lakuntzan, Etxarri Aranatzen, Altsasun eta Olatzagutian daude taldeak oraingoz. **Praktikatu gurekin!** leloarekin euskaraz gozatzeko gonbitea sakandar guztiei egin zaie.

Gurasolagun

Mintzakide programa hazi ahal behar berriak sortzen dira, eta horren adibide da Gurasolagun. Euskarak segidarik izanzen badu ezinbestekoa da gurasoen eta seme-alaben arteko hizkuntza transmisioa. Familia barruko hizkuntza harremanetan eragiteko sortu da Gurasolagun. Bere helburua da egoera berean dauden gurasoak harremanetan jartzea. Berdin du plazan, parkean, aste-buruko txangoetan edo non den. Familia edo lagun giro guztiz euskalduna sortzen da, zeinetan gura-



Astean ordu bat besterik ez da behar Mintzakiden parte hartzeko eta euskara praktikatzeko. ARTXIBOA

soak eta umeak mintzakideak diren.

Sakanako Mintzakide programa ibarreko zenbait ikastetxe eta ikastetxetako guraso elkarteekin harremanetan jarri da eta haiekin elkarlanean Gurasolagun esperientziak martxan jarriko ditu. Ikastetxe bakoitzean kartelen bidez emanen dute horren berri. Interesatuak ikastetxeko idazkaritzara jo beharko dute informazio eske.

Euskararen aldeko auzolanerako deia

Mintzakide programan edozeinek parte hartu dezake: euskaldun zaharrak, euskaltegiko ikasle ohia, euskara ikasten ari dena...

Euskaraz hitz eginez jende berria ezagutzeko aukera ematen du, dohainik. Izena emateko Sakanako AEKren Itsasi euskaltegira jo behar da: 948 468 258 edo 607 624 392 eta e-postaz sakana_mintza@aek.org.

Euskara praktikatzeko aparte Mintzakide edo Gurasolagun izateak bestelako abantailak ditu: EHUko kredituak eskuratu ahaliko dituz-

te, bidaietarako eta egonaldietarako deskontuak, Aizu! eta Argia aldizkariak eta Berria egunkaria merkeago eskuratzeko aukera eta beste.



Tokikom-eko hedabideetako ordezkariek EITB-koekin batera, akordioa sinatu ondoren.

Tokikom eta EITB elkarlanean

Ostiralean akordioa sinatu zuten, Euskadi Irratian zegoen elkarlana ETB1era zabaldu da

Euskarazko tokiko hedabideak biltzen dituen Tokikom elkarteak eta EITBk elkarlan akordioa sinatu zuten ostiralean. Joan den urtean abiatu zuten elkarlanari segida ematen dio akordioak. Aurreko ikasturtean Tokikom-eko hedabideetako ordezkariek, txandakatu, Euskadi Irratiko *Mezularia* saioan Tokikom tertulian parte hartu dute astelehenean, 18:30ean. Hala, Sakanako albisteak bost astean behin ematen ditu Alfredo Alvaro Igoak. Hurrena astelehenean.

Irratiko esperientzian oinarrituta, ostiraleko sinadurarekin ETB1eko programazioan ere Tokikom-ek parte hartu du, Maddalen Iriartek gidatzen duen *Azpi-*

marra saioan zehazki. Sakanatik Maialen Huarte Arano kazetari ihabardarra joan da. ETBko kameraren aurrean estreinakoz hilaren 20an jarriko da, 17:15ean.

Hasiera

Maite Iturbe EITBko zuzendari nagusiak eta Urko Aristi Tokikom-eko presidentek sinatu zuten akordioa. Biek adierazi zuten, "emankorra izanzen den bide baten hasiera baino ez da" akordioa. Bi erakunde arteko hartu-eman zertan gauzatu den zehazteko, prozesu bat finkatu dute hasieran. Eta iragarri dutenez, "pixkanaka-pixkanaka" EITB taldeko eta Tokikom-eko hedabideetan antzemanen da.

Maite Iturberen ustez, bi aldeei ekarpen aberatsa egiten die

hitzarmenak: EITBk ahots gehiago izanzen ditu eta, gainera, hurbiltasun hori zabaldu eta sendotu egingen du. "Tokikom-ek, halaber, babes eta euskarri izanzen gaitu, informazioaren alorrean batik bat", gaineratu du.

Tokikom-etik zabaldu den ideia bat da euskal komunikabideen etxea bi solairukoa dela: behekoan tokikoak daude eta goikoan nazio mailakoak. Aristik aipatu zuenez, "ezinbestekoa da bi solairuen arteko igogailuak eraikitzea, eta elkarlan akordio hau sinatutakoa horietako bat da". Akordioan agertzen denez, hasiera batean batzuen eta besteen agendak elkartrukatu dituzte bi erakundeek, eta aurrerantzean materiala elkarbanatzeko aukeretaz ari-tuko dira.

EGITARAUA

10:00 TXISTOR EGUNAREN HASIERA ETA MERKATUAREN IREKIERA

10:00 HERRIKO TXISTULARIAK HERRIAN ZEHAR

11:00 XAPIRU TRIKITIXA ESKOLAKO TRIKITILARIAK

11:00 AATE PLAZAN

11:30 PINTXO LEHIAKETAREN HASIERA

15:00 BAZKARI HERRIKOIA PLAZAN. Tikitak ohiko tokietan salgai.

17:30 HERRIKO AIZKOLARIAK

19:00-21:00 JON OSTOLAZA ETA NARBAIZA TRIKITILARIAK

20:00 AATE

EGUNEAN ZEHAR: EUSKAL TXERRIAK, ZOTOLA, TXISTOR ETA TRIPOTA EGITE ERAKUSKETA, ARGAZKI ERAKUSKETA, LIXIBA ETA XABOIA, TXANTXIGORRI EGITE ERAKUSKETA, EHOZIRIAK, SENDABELARRAK...

ANIMATU ETA PARTE HARTU

ARBIZUKO TXISTOR EGUNA

2014 URRIAK 12

Laguntzaileak



Aingeru Mikeo

Eltzeko babarrunak gustuko ditut, nahiz AEBko filmetan ez atera

astekoa gutunak

Ez dira gaurko kontua euskararen gaineko topikoak. Horietako bat, zailtasuna nabarmentzea izan ohi da 'eskeesmuydifizil'. Berriki, Mikel Mendizabalen 'Hizkuntzen berdintasun komunikatiboa: mitoa ala errealitatea' argitaratua, egitura eta ekonomia linguistikoaz hainbat adituren iritziak jasoz.

Egileari entzunda, ingelesa goratuz, probatxo simple bat egitea otu zait eusk/gaz/ing esaldi

eredu baten silabak kontatuz: Tesi okerrak garatzen dituzten 'adituak' hobeki leudeke isilik (19) / Los 'especialistas' que desarrollan tesis erróneas estarían mejor callados (21) / The 'specialist' who develop thesis wrong would be better silent (19). Ez dago halako alderik tamainari dagokionez; hala ere, 'aditu' horiek, indartsuenen lilurak hartuta, edo, batez ere ingelesa edo espai-

nola, hizkuntza urrituak gaitzes-tea helburu dutela ematen du.

Verónica Engler hizkuntza antropologian adituak argi dio hizkuntza bat ez dela liburu batean jasotako gramatika, baizik eta norbakoaren, taldearen eta identitatearen agerpena. Berriz, Juan Carlos Etxegoien "Xamar" euskaltzaleak dioenez, Euskara Gu gara, gure adimena, euskaldunak. Bakoitza den bezalakoa, abe-

rastason eta altxor.

Erraztasun/zailtasun, nagusi/urritu, finantza-militarki indartsu/ahul, zein dagakoa? Beti ere, euskaldun jatorrak solasean sumatzen ditut, goxo-goxo, bate-re ajerik gabe. 'Aditu' horiek, jate kontuekin parekotasuna eginez, denok hanburgesa koipetsua soilik jaten jarri nahi gaituzte, AEBko filmetan bezala.

aingerumi@gmail.com

hara zer dien

Ludopata digitalak

FEJAR (Federación Española de de Jugadores de Azar en Rehabilitación) elkarteak, nerabeei zuzendutako ludopatien prebentzio kanpaina aurkeztu berrian, orain dela 3 urte on-line jokoak legalizatu zituztenetik, ludopatiaren artean tratamenduak jasotzen ari dituzten gaixoen artean bigarren arazoa bihurtu dela adierazi du. Beti ere, txanpon makinaren ondoren.

Diotenez, on-line jokatzeko duten arteko % 1.5 eta % 2.5 artean garatu dezakete erabilera patolojiko bat, eta gora doa adikzio-

an erortzen ari diren jokalarien kopurua, gehienbat gazteen artean. Mendekotasuna edo erabilera patolojikoak ari garenean, joko mota hauekiko kontrol galtze nabarmen batez ari gara.

On-line jokoaren ezaugarri garrantzitsuenak berehalakotasuna eta eskuragarritasuna dira (momentuan bertan dakigu irabazi ala galdu dugun), horregatik da hain mendekotasun sortzailea. Gainera adin konkretu hauei zuzentzearen arazoia, nerabeen artean normala den heldutasun ezarengatik eragina handiagoa

izan daitekeela eta kontrolatu gabeko web horrietan jolasten bukatu dezaketela.

Honengatik guztiagatik FEJAR elkarteak, 12-15 urte bitarteko gazteei zuzendutako "No caigas.com" prebentzio kanpaina martxan jarri du. Kanpaina hau Plan Nacional sobre Drogasek bermatu duelarik.

Ezin dugu ahaztu Espainian, adin txikikoek ezin dutela on-line jolastu, heldu baten nortasuna ordezkatzuz, edo identitate faltua erabiliz, edo legez kanpoko web horrietan ez bada. "No caigas.com" kanpaina nerabeei zuzendua dago eta bertan familien eta hezitzaileen inplikazioa eskatzen da. Kanpaina berri hau ez doa jokoaren aurka, ezta whatsappen aurka

eta ezta teknologia berrien aurka; hauen erabilera egokia sustatzea du helburu.

Teknologia berriena ezaugarrietaz informatzea eta beharrezkoa izanez gero erabilera egoki eta kontrolatua lortzeko estrategiak sortzea da kanpaina honek jarraitzen duena. Eskola eremuan landu daiteke hiru saiotoako tailer baten bidez, non ikasleek gain gurasoek eta irakasleek ere badute bere zeregina.

Bestalde, nerabeen artean arrisku erabilera ematen ari dela jakiteko seinale batzuen berri ematen digute ere: bakardadea, egiten ari dutena ezkatzea, egiten ari dutena uztean estualdia eta eskola emaitzetan arazoak.

Prebentzio programak

hara zer dien

Gozatzeko, haserretzeko, maitatzeko eta ingurukoekin bizitza dastatzeko tresna

Erosi, udalarekin harremana izan, seme-alaben gorabeheraz arduratu, familia eta lagun arteko giroaz gozatu, ikasi, lan egin, ongi-eza medikuari azaldu, administrazioarekin gure betebeharraren egunean egoteko gestioak burutu... eta beste hainbat eta hainbat egiteko izaten ditugu gure egunerokoan.

Baina, zenbatetan gertatu zaitzu gauza horiek euskaraz egin nahi izan eta ezinean aurkitzea? Zenbatetan sentitu duzu amorrua, nahigabea, gutxiespena "en castellano por favor" ihardetsi dizutenean, edota jakinarazpe-

na/inprimakia gaztelania hutsean jaso duzunean? Zenbatetan egin behar izan duzu itzultzailearena zure seme-alabaren medikuarekin? Zenbatetan zure orde-nagailu aurrean jarri eta erdaraz jarraitu behar izan duzu Nafarroako Gobernuaren tramitea egiten?

Sakandar askok adierazi dugu euskaraz bizitzeko nahia behin baino gehiagotan. Euskara, gure ingurukoekin gozatzeko, haserretzeko eta bizitza dastatzeko tresna izatea nahi dugula. Euskara ahoan nahi dugula eta ez zuloan.

Guk guztiz ximple bizi nahi dugu. Natural-natural gure hizkuntzan aritu. Euskaraz bizitzea ez da ideia bat. Nahia ez da apleta, kapritxo; gure eskubidea da. Eta ez du beste esplikaziorik behar.

Baina, askotan, eskubiderik oinarritzkoen jabe egiteko borrokatu egin behar izan du gizakumeak. Horrela, euskaraz bizi nahi duten pertsonen egunerokoan erakusten duten irmotasunak eta sendotasunak aldaketak sustatu ditu administrazioen eta entitateen hizkuntza portaeretan. Hori erakutsi digu

Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren 13 urteko jardunak.

Ikasi dugu egunerokoan ahale-ginduz eta ezin denean laguntza eskatuz, urratsak eman daitezkeela: erdara hutsean dagoen kartela aldatu, euskaraz ez dagoen jakinarazpena ele bietan jarri, kutxazaineko hizkuntza konfigurazioa aldatu, pediatra euskalduna lortu....

Aldaketa horiek herritarrak Behatokira helarazitako kexa izan dute oinarri. Herritarrak oztopoaren berri eman eta elkarrekin bultzatzea eginez lortu dira.

Urrats txiki edo neurri apalak direla iruditu arren, horietako bakoitzak, euskara erabiltzeko eta euskaraz bizitzeko aukerak areagotu egiten ditu. Izan zu ere aukeren biderkatzaile.

Hizkuntza Eskubideen Behatokia

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Mainer Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publicitate@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano eta Eñaut

Arribengoa Apaolaza
ZUZENTZAILEA: Maria Luisa Zelaia Mendia
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikako Salburuzordeta

IRTEERARAKO IZEN EMATEA ZABALIK:
Arakilgo Udazkeneko Kultur Agendaren barruan, hilaren 18an, Añanako gatzaga eta Baronatarren dorrea ezagutzeko irtee-

ra antolatu du Arakilgo Udalak. Izena emateko edo informaziorako 948 500 101 edo 634 584 226 telefonoetara hots egin.

sakanerria >>>

>> **Arbizu**

Txistorrarekin hitzordua

Igandean, 10:00etatik aurrera, Txistor eguna ospatuko da Arbizun

Seigarrenez antolatu du Arbizuko Udalak Txistor eguna. Etzirako dena guztia prest dute. Etziko ospakizunarekin Arbizu bera eta herrian lantzen den produktu bikaina, txistorra, ezagutzera eman nahi udalak. Urtetik urtera gero eta izen handiagoa hartzen ari den erakusleiho ederra da Txistor eguna. Miren Mendinueta alkateak txoko ezberdinetako herritarrei Arbizura gerturatzeko gonbitea luzatu die.

Egunari izena ematen dion produktua, txistorra, izanen da eguneko protagonista. Embutidos Arbizu, Flores Estekiak, Anastasio Razkin harategia eta Laket Artesanos etxeek emandako 140 kilo txistorra banatuko dira goizean. 1,5 euroren truke txistor pintxo eta ardo ondu edalontzi bat dastatzeko aukera izanen da.

Tailerak

Berrogeita hamar bat arbizuar ariko dira etzi Txistorra eguna aurrera ateratzeko lanean. Haiek askok txerriarekin zerikusia duten erakustaldietan parte hartuko dute. Guztiak ere eliz ondoko jolas parkean egonen dira. Alde batetik, txerria zatikatzen ikusteko aukera izanen da. Bestetik, tripota, txistorra, xaboi eta lixiba, txantxigorri, birrikak, txerri hankak eta belarriak egosteko tailerrak egonen dira. Azken bi produktu horiek egosi eta friji-



Udal ordezkariak guztia prest dute iganderako. Behean ikastetxeetako ikasleak atzo egindako talo eta txistor tailerlean.

Zotola

Kiroldegi pareko belardian, aurreko urteetan bezala euskal arrazako txerria ikusteko aukera izanen da. Zotola konpondua mustuko dute.

tu ondoren salgai jarriko dituzte. Tailerretan aurtengo berrikuntza sendabellarrena izanen da.

Txikiak



Aurreko edizioetan bezala, aurten ere haur arbizuarrak izan dira Txistor eguneko ekitaldietan parte hartzen lehenak. Atzo goizean eskola eta ikastolako txikiak talo tailer batean parte hartu zuten elkarrekin. Taloa egiten ikasi zuten. Txistorra, jakina, ez zen urruti ibili. Aurreko urteetan harategi bat edo txistorra ekoizten duen enpresa batera bisita egin izan dute, edo Anastasio Razkin harakina bisitan joan eta azalpenak eman izan dizkie.

Egitaraua

10:00etan Txistor egunaren hasiera eta merkatuaren irekiera.
10:00etan Herriko txistulariak herrian zehar.
10:00etan Xapirur trikitixa eskola.
11:00etan Aate plazan.
11:30ean Pintxo lehiaketaren hasiera.
15:00etan Herri bazkaria (babarrunak sakramentu guztiekin).
17:30ean Aizkolariak.
19:00etatik 21:00etara Jon Ostolaza eta Narbaiza trikitilariak.
20:00etan Aate.

Pintxo lehiaketa

Sukaldean irudimena eta abilezia erakusteko aukera ere ematen dut txistorrak. Horregatik, pintxo lehiaketa antolatu du atzera ere udalak. Aldabide elkarteak pres-tatu beharko dituzte lehiaketara aurkeztutako gutziaren 5 ale. Lehiaketan aritzeko izenazazpi parte-hartzailek eman dute: Karrika taberna, Baxerri erretegia, Kiroldegi taberna, Arrautseko taberna, Olatzea hotela, Jubilatuen taberna eta Eskolako guraso elkarteak. Txistor pintxo lehiaketarako epaimahaia, aurten ere pisuzko pertsonaiek osatuko dute: Javier Diaz (Alhambra jatetxeko sukaldari nagusia), Fernando Flores (Enekorri jatetxea), Helena BM (gastronomiako blogaria) eta Joseba Ezkurdia (pilotaria). Haien epaiak 300 euro emanen dizkio irabazleari.

Azoka

Gero eta gehiago dira Arbizun postua jarri nahi duten artisauek. Aurten inoiz baino gehiago izanen dira, 42: Enrique Gastaka (pastelak, Laudio), Juan Carlos Otero (pilotak, Anoeta), Aitziber Erasun (zilarrezko bitxigintza, Doneztebe), Marta San Migel (euskal panpinak, Donostia), Cerveceria Artesana Navarra (gara-

gardo, Mutiloa Beiti), Segurako Taloak (taloa, Segura), Alazne Juaniz (poltsak, Etxarri Aranatz), Ataungo Taloak (taloa, Ataun), Galburu okindegia (ogia, Lekunberri), Cristina Flores Jaka (Arbizu), Cesteria Garralda (saskiak, Iruña), Nafarroa Bizirik (Enneco memoria parkea), Pastas Olite (pastelak, Erriberri), Elvira Barcelo (bitxiak, Araia), Sojo natura (jaboiak-kremak, Lekunbe-

rrri), Xabier Iturrioz (oinetakoak, Erasos), Fernando Zubiria eta Ines Jimenez (piper erreak, Azkoien), Mirian Aldabaltreku, Dulces Virgen de Ujue (garrapiñatuak, Tafalla), Jose Antonio Lujanbio (eztia, Goizueta), Leire Belaustegi (pastelak, Izarra), Placido Tainta Ausenjo (mahatsaeta baratxuriak, Faltzes), Anastasio Razkin harategia (txerriak, Arbizu), Gorka Flores (gazta, Arbizu),

Vialdea SL (eztia, Iruña), Katealde (ahatekiak, Altsasu), Legarbeko karakolak (karakolak, Etxarri Aranatz), Jaunanezko gazta (gazta, Arbizu), Laket artesanos (txerriak, Arbizu), Arbizu SL (txerriak, Arbizu), Embutidos Flores (txerriak, Arbizu), Fernando Gozotegia (pastelak, Hernani), Chani Espinosa (pastelak, Latasa), Antonia Mrgiondo Alustiza (baserriko produktuak,

Gabiria), Peio Lazkoz Razkin (harria, Arbizu), Jeingenekoa (esnekiak, Etxarri Aranatz), Conservas del Reino (kontserbak, Lakuntza), Julen Karasatorre (gazta, Etxarri Aranatz), Mahala (baserriko produktuak, Leaburu), Imma Montosa Sanchez (mermeladak, Ororbia), M^a Angeles Estanga Reparaz (babak eta gazta, Donostia) eta Mañekoazpi SL (pastelak, Mallabia).

ZERGATIK UKO EGIN CITRÖENEN ESPERIENTZIARI?

CITRÖEN LANAK

GARDENTASUNA, ZORROZTASUNA ETA FABRIKANTEAREN BERMEA

DISTRIBUZIO KIT-A

PSA TALDEKO (PEUGEOT-CITRÖEN) JATORRIZKO PIEZETAN **%30 EKO DESKONTUA**

ZURE IBILGAILUAK 5 URTE EDO GEHIAGOKO ANTZINATASUNA DAUKA? CITRÖENEK ZURE IBILGAILUAREN ANTZINATASUNARI BEREZIKI EGOKITUTAKO ERAGIKETAK PROPOSATZEN DIZKIZU. INFORMAZIOA CITRÖEN EKO BANATZAILE OFIZIALARI ESKATU.

CITRÖEN nahilago du TOTAL.

(*) Begiratu eskaintzaren baldintza orokorrak eta eskatu konpromezunrik gabe zure CITRÖEN autoarentzat aurrekontua. Indarrean dauden beste eskaintza batzuekin ez da bateragarria. Argazkia ez da kontratuzkoa.



CRÉATIVE TECHNOLOGIE

» Etxarri Aranatz

Ziza eta landare bete frontoi

Igandean, 10:00etatik 17:30era, Etxarri Aranazko frontoian erakusketa mikologikoa eta botanikoa. 200 bat ziza eta beste horren beste landare izanen dira ikusgai

Euskalerrriari frontoi etxarriarrik natura-zientzien museo itxura hartuko du etzi. Hartzabal elkar-teak eta mikologilantaldeak antolatuta, atzera ere, ziza eta landare erakusketa izanen da. Mikologia Etxarrin sustatu zuten Bixente Garziandia, Bartzeren, eta Jose Luis Eseberriren omenezko erakusketa izanen da igandekoa.

Antolatze lanetan ari den Ventura Mundiñanok esan digunez, aurten joan den urtean baino arazo gutxiago izanen dituzte erakusketa prestatzeko: "aurreko urtea oso lehorra izan zen eta zizak ezin hartu ibili ginen, ez zeudelako. Aurten mugitu da eta erakusketak itxura polita izanen du". Landareekin ez dute halako arazorik, "busti edo lehor, beti hartzen ditugu".

Mundiñanok aitortu digu mikologian aritzeko lan handia egin behar dela eta ikasten hasten den jendea berehala aspertzen dela edo erraz-alde jokatzeko duela. Landare kontutan, ordea, sendabelarrengatik eta abar "jende gazte gehiago dabil, onak".

Sailkapena eta elkarlana

Erakusketa antolatzen den etxarriar taldea bihar goizean joanen da basora. Han jasotako landare



Eguraldiak lagunduko ez duela iragarri dutenez, plazatik frontoira aldatu da erakusketa. ARTXIBOA

etazizak sailkatzeko larunbat arratsaldean dute hitzordua. 17:00etatik 22:00etara jasotakoa identifikatu eta bakoitzari bere fitxa jartzen diote. Zizen kasuan izen zientifikoarekin batera, baldin badu, euskarazko izena dago fitxan. Landareei dagokienez, izen zientifikoaz eta euskarazkoaz aparte, zertarako erabiltzen den ere gaineratzen da. Larunbatean lana despedituta Goierriko Zurak enpresak utzitako mahaietan jarriko dituzte igande goizean, 100 metro mahai baino gehiago izanen dira.

Erakusketan izanen diren ale guztiak ez dira Etxarri Aranatzeko jasoak izanen. Mundiñanok jakin

narazi digunez, Tafallako erakusketak antolatzaileen laguntza izaten dute urtero. "Haiek goizean Orbaibarrean zizak jasotzen dituzten eta arratsaldean ekartzen dizkigute. Guri sailkatzeko laguntza digute gainera". Egiteko horretan Chema Ausin eta Jose Ramon Belokiren laguntza ere izaten dute.

Tafallarrekin elkarlana nola sortu zen azaldu digu Mundiñanok: "ikastolako talde batek mikologia landu nahi zuen eta Bartze joan zen erakustera. Hortik harremana sortu zen eta mantendu egiten dugu". Ikastolako irakasle batek asko ikasi zuela gaineratu

Pintxoak
Erakusketaren osagarri, Etxarri Aranazko tabernetan zizekin egindako pintxoak dastatzeko aukera izanen da. Iturri-Eder, Lekuona, Xapatero, Derry eta Iratxo tabernetan izanen dira ziza gutuziak dastatzeko.

digu Mundiñanok. Tafallan bi urtean behin antolatzen dute mikologia-erakusketa eta orduan etxarriarrik dira herritik Tafallara zizak eramaten dituztenak eta haiek laguntzen dituztenak. Aurten azaroaren 9an izanen da.

» Etxarri Aranatz

Unanura joan dira Sakanako Gazta Txapelketako lehen bi sariak

Zazpi gazta ekoizle izan ziren igandean Etxarri Aranazko ferietako Sakanako Gazta Txapelketan lehiatu zirenak. Lehen saria (100 euro) Unanuko Balda-Artola gaztandegiak eskuratu zuen. Bigarrena (70 euro) ere Unanun gelditu zen, Ibarborda gaztaren egileendako. Podiuma (40 euro) Urdiaingo Sarabe gaztak osatu zuen. Idiazabal jatorri

izendapeneko Jose Ramon Agirianok gidatuta Iñigo Lazkoz (Hartzabal elkar-tea), Jon Etxeberria (Udaberri elkar-tea) eta Jose Ignazio Mozo (Gure Etxea elkar-tea) osatu zuten epaimahaia.

Aipatutako ez aparte, Uhartegazta (Uhartegazta), Albi (Arruazu), Arana-Etaio (Arbizu) eta Amillano gaztandegia (Altsasu) lehiatu ziren.



Etxarriko alkatea, saria jaso zuten hiru gaztagileekin batera.

» Arbizu



Iruñean jasotako aitortzarekin pozik zeuden harategian.

Nafarroako txistorra txapelketan Razkin harategia finalista

Nafarroako Harakinen Gremioak antolatuta, igandean, elkar-tearen egoitzan jokatu zen IX. Nafarroako Txistorra lehiaketa. 51 txistorra ekoizleek aurkeztu zituzten euren txistorrak lehiaketara. Epaimahaiak 10 finalista aukeratu zituen

eta haietatik txapela Tafallako Hermanos Sarnago harategiko jabeek eman zuten. Finalisten artean Arbizuko Anastasio Razkin harategiko txistorra zegoen. Pozik jaso zuten euren produktuaren kalitatea ziurtatzen duen diploma eta mandarra.

SAKANA

120 gaixorekin erakutsi nahi dituzte errausketaren ondorioak

Bihar, 12:00etan, Altsasuko Iortia kultur gune parean egingen du 3MBB protesta ekintza

Kanpainako ospitale erraldoi bihurtuko du bihar 3 Mugak Batera (3MBB) plataformak Altsasuko kultur gune pareko plaza. 120 ohetan beste horrenbeste gaixo izanen dira. Bakoitzak errausketak osasunean eragin dezakeen gaitzetako bat islatuko du horrela. Plataformak biltzen dituen hiru eskualdeetako herritarrek parte hartuko dute protesta ekitaldian eta 3MBB plataformatik bertan parte hartzera deitu dute.

» Irurtzun

Martina gabe, ITB aurrera

Agorrileko oporretan joan eta bikotearekin desagertu zenetik Irurtzunge Telebistako (ITB) Lore aurkezlea atsekabetua bizi da. Hala erakutsi du ITBk argitaratu berri duen azken saioak. Hartan iraila hasieran izan zen bertako ganadu azokaren berri zabala ematen du. Horretaz aparte, Irurtzundarrak munduan atalean Tanzaniara egin du bidaia. Baina Lore zimeldua biziberrituko duen bekariorik ba ote munduan? Urritzolan sikiera? Jakin nahi duenak www.irurtzuneuskaraz.com web orrira jo dezala.

» Lakuntza / Altsasu

Gobernuak udalekin zor handien dutenen zerrendan daude Altsasu eta Lakuntza

Nafarroako Gobernuak 77 udali 1.851.237 euro zor dizkie, kooperatiba eta fundazioen zergen hobari edo salbuespenengatik. Haiek udalek kobratu beharreko zenbait zerga ez dituzte pagatzen eta, horregatik, gobernuak udalei ordaindu behar die. Lakuntzako Udalak konzeptu horregatik 30.503 euro ditu jasotzeko. Altsasukoak, berriz, 289.827 euro.

» Olatzagutia

Datu pertsonaleko fitxategiak sortu ditu udalak

Lau fitxategi sortuko dira: izatezko bikoteen erregistroa, Udan Euskaraz, hilerrriaren kudeaketa eta euskarazko komunikazioak

Olatzagutiko Udalak irailaren 25ean egin osoko bilkuran onartu zuen Datu Pertsonalen Babesari buruzko Legea baliatuz lau fitxategi sortzea. Beti ere, pertsona fisikoen eskubide oinarrikoak bermatzea eta babesteko, bereziki haien ohera eta norberaren eta familiaren intimitatea.

» Arakil

Arakilgo Haizea dokumentalak harrera beroa izan du

18 arakildar adinduren testigantzak jaso ditu Labrit Multimedia. Dokumentalaren mustutzeak arakildar asko elkartu zituen

Maialen Huarte Arano

Ondare ez materialaren bilketan lanean dabil Labrit Multimedia. Arakilera iritsi berri da bere lanaren emaitza. Hiriberrin estreinatuzuten Arakilgo Haizea izeneko testigantzen bilduma. Labrit Multimediako Gaizka Aranguren eta Itziar Aranguren esanetan, dokumentalean agertzen direnak ez dira hitz galdu soil batzuk, antzinako eta gaur egungo irudiekin tartekatzen diren istorioak dira.

Arakilen bizitako eta jazotako gertaerak ekartzen dituzte gogora 18 bizilagunen hitzek. Nolako garaiak bizi izan zituzten antzina, zer nolako ohiurak zituzten, zer nola transmititzen zuten batzuen eta besteen artean kultura, zer nolako bizimodua zuten... 40 minutuko dokumentala da aurkeztu dutena. Txukun, maitasun osoz eta

irudi landuekin osatu dute: "ordu morderoa dugu aurretik grabatua, izan ere, dokumentalean agertzen diren guztiekin bi orduz izan ginen grabatzen". Hori bai, laburtutako bilduman guztiek dute txokoa. Bakoitzak bere herriko bizipen bat edo ohitura izandako pasadizoren bat du ahoan.

Jendetza hurbildu zen erabilera anitzeko mustu berriko gunera. Hiriberriko gela, lepo bete zen. Bi saiotan egin zuten aurkezpena. Lehenengoan dokumentalaren protagonista asko izan ziren. Gaztelaniazko bertsioa zen ikusi zutena. Bigarrengoan jende gazteagoa hurbildu zen. Euskarazkoak ere harrera jendetsua izan zuten. Arakilgo hainbat bizilagun ere hurbildu ziren Arakilgo Haizea ikustera. Alkatea ere han zen, Ruben Goñi. "Barreak eta malkoak tartekatu dira. Hunkigarria izan da 18 adinduen kontuak entzun eta eurekin konpartitzeko aukera izatea".

DVDak salgai daude



Arakilgo udaletxean jaso daitezke DVDak 10 euroan. Jende askok jo du bateskuratzen. Labrit Multimedia lan handia egin du emaitza hori lortzeko. "Testigantzak eta irudiak tartekatzen dira filmean. Antzina argazki batzuk ere badira tartean eta Arakilgo herriak ikus daitezke gaur egundauden moduan. Herri

bakoitzak duen kuttunen edo erakargarriena islatzen da", azaldu zuten dokumentalean lanean aritu diren Itziar eta Gaizka Aranguren. Dokumentalaren aurkezpenan izan ziren biak hala biak. "Kontent gaudelortutako emaitzarekin, uste dugu jendeak gozatu duela. Tarte batzuetan barre algarak entzun

dira, eta protagonisten aurpegietan malkoak ere sumatu ditugu", azaldu zuten. Nabarmendu zutena da, altxor handia dutela arakildarrek bailaran eta dokumentalaren bitartez, altxor hori gordetzeko aukera izanen dutela, antzinako istorioak gaur egungo haurrek gerora ere mantentzen dituzten.

» Etxarri Aranatz

Udalak Extremera "faltsukeriagatik" gaitzetsi du

Hondakin bilketa sistema berriaren inguruan prentsan argitaratu zuen gutun batean gezurrak esateagatik. PPko kideak esandakoak egia ez zirela dio Mank-en txosten batek

Bilduko eta NaBaiko zinegotzien botoekin, Etxarri Aranatzko Udalak PPko zinegotzi Juan Antonio Extremera "faltsukeriagatik" gaitzetsi zuen astelehenean. Zinegotzi popularrak irailaren 16an Nafarroako prentsan argitaratutako gutun batean hondakin bilketa sistema berriaren inguruan esandakoagatik jaso du udalaren gaitzespena. Etxarri Aranatzko Udalak zabaldu duen ohar batean bilkuran jazotakoaren berri eman du.

PPko zinegotziak argitaratutako gutunean adierazi zuen igandean arraina jaten den etxeetan, hondakinak botatzeko hurrengo larunbatera arte itxaron behar duela. Astelehenean hori gezuzorra zela esan zioten popularrari: "igandean bertan hondakina atez ateko zintzikarioan utzi edo konpos-

ta-gailura eraman daiteke". Hondakin bilketa sistema berriak indarrean bi urte beharrean urte eskas bat daramala argitu zioten.

Extremerek bere idatzian gaineratu zuten "herria arratoi beteta" zegoela. Halakorik ez zela ukatu zioten alkateak eta idazkariak. Horretarako, gertakari epidemiologikoen erregistroaren berri eman zioten. "Sistema berria indarrean denetik ez da arratoi gehiago ikusi. Kontrakoa, indarrean jarri zenean gertakari kopuruan jaitsiera txiki bat izan zen".

Etxarri Aranatzko Udalak Mankeko Hondakin Bilketa Zerbitzuko langileen profesionaltasuna zalantzan jartzeagatik ere gaitzetsi zuten Extremera. PPkoak esan zuen langileak "hondakinetan kuxkuxeatu" egiten zutela, etxeetako berri jaso. Gogorazizioten pertzak anonimoki kodetuak daudela eta Datu Pertsonek Babeserako Legea "zorrotz" betetzen dela.

Iritziak

Bilduko ordezkariak PPko zinegotziari "gezur handiak erraztasunez" esatea leporatu zion. Extremerez esan zuten: "administrazioaren funtzionamendua, orokorrean, eta Etxarriko errealitate konkretuaren inolako ezagutzarik ez du". Zinegotzi jardunean "akats handiak eta zorrotasun falta etengabeak" direla nabarmendu zuten koaliziotik. "Ordezkarri publiko batek herritarrei publikoko etengabe gezur esateak gaitzetsigarria da eta zilegitasun politikoa kentzen dio". Mank-en informatzeko aholkatu zioten.

NaBaiko ordezkariak ere PPko zinegotziaren jarrera "zorrotz arbuiatu" zuten eta "haren adierazpenengatik harridura azaldu zuten". Koalizioko kideak azaldu zuten hondakin bilketa sistema berria ezarri aurretik dudak sortu zirela, baina behin indarrean sistema garbia eta eraginkorra



Udal bilkurako une bat.

dela erakutsi du, emaitza onak ematen dituena eta ezarritako sistema babestu zuten.

Zinegotzi popularrak bere idatzia justifikatu zuten, baina aitoratu zuten hondakin bilketa sistemaren dinamika ez duela ezagutzen eta emandako datu batzuk "aitze-

Galdeketa

Extremerek udalari gutunean leporatu zion hondakin bilketa buruzko galdeketa sistema indarrean jarri aurretik ez egitea. Alkateak gogorazi zion sistema berria ezarri ondoren galdeketa egiteko konpromisoa hartu zuela udalak. Eta aurreratu zuten udala hori bideratzen ari dela gaur egun: "etxe guztietara hots eginez telefono kontsulta eginen da etxarriaren iritziak jasotzeko".

raz" zekizkiela. Aurreko udal bilkuran, bestalde, alkateak idazkariaren txosten zertifikatua eman zion. Idatzi hartan jaso da Etxarri Aranatzko Udalak ez duela erailketagatik inor seme kuttun izendatu. Horrela, Extremerek hainbat komunikabideetan esandakoa ukatu nahi izan zuen udalak.

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

POLIKIROLDEGIKO
TABERNA
Sandwichak
Bokatak
Pizzak
Plater konbinatuak
Errazioak
Hanburesak
Pintxoak
948 461 610 • ARBIZU

GANUZA
SUKALDEAK
Sukalderako altzariak
Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Etxetresna elektrikoak
Tel: 948 460 203 Fax: 948 460 673
c.ganuzas@cocinasganuzas.com
www.cocinasganuzas.com
Etxarriko industrialdea
ETXARRI ARANATZ

sorgiñak
taberna
LAKUNTZA
948 576 357

TxikiTxo
haurren arropa eta lentzeria
948 46 73 08
Ferialeku 2 • ALTSASU

» Ziordia

Tira-birak Ziordiko Udalean

Geroa Baik Bilduko zinegotzi baten "jokabide onartezina" salatu du. Bildutik diote eztabaida ez zuela zinegotziak eragin, "bilkurretan egiten den kontrol zorrotzaren ondorioz" hasi zela

Ziordiko Geroa Bai taldeak irailaren 30eko udal bilkura eta gero batzar aretoan izan zirenak salatu ditu: "Bilduko zinegotzia den Teodoro Perkazek Geroa Baike zinegotzi baten kontra egin zuen gogotik". Alkatetzako taldeak azaldu dutenez, "egundoko iskanbila sortu eta onartezinak diren akuzazioak eta hitzak baliatu" zituen. Geroa Baitik adierazi dutenez, "hainbat lekukoren aurrean eta beste askoren artean, Perkazek udal gobernu taldeko kideak hilik nahi zituela esan zuen, orduan bai poztuko zela gaineratuz".

Alkatetzako taldeak "sutsuki gaitzetsi eta salatu du jokabide hau". Geroa Baitik adierazi dutenez, "gertakizun hau, Teodoro Perkaz zinegotziak bere gain duen historial negargarria osatzera dator". Horregatik, "herrian bizikidetzak baketsua bermatzearen alde, baita bere taldearen onurako ere, hobe luke udaletxetik ber-



Ziordiko Udala eratu zen egunean.

tatik sekula ez agertzea".

Erantzuna

EHBildutik azaldu dutenez, "legeintzaldi berezia izaten ari da hau Ziordian, taldeen arteko harremanak tentsionatu diren legeintzaldia. Etengabeko erasoak, eztabaida beroegiak, bilkurak bertan behera uztea...erasoak, inoren gustoko ez diren egoeretan buka-

tzen direnak". Koalizioetik zehaztu dutenez, "girotentso honen baitan gertatu zen bilkuraren ostean izan zen eztabaida". EHBildutik argitu nahi izan dutenez, "ez zegoen udal gobernu kideak iraintzeko inolako intentziorik. Eztabaida bera ez zuen Teodoro Perkazek sortu edo eragin, zinegotzi honek bilkura guztietan egiten duen kontrol zorrotzaren ondorioz

hasi zela baizik".

Koalizioetik jakinarazi dutenez, "orain arte bezala lanean jarraituko dugu, udalean Geroa Baik egiten duen kudeaketaren kontrol eta fiskalizazio zorrotzari". EHBildun argi dute oposizio lana "ez du gustoko gobernu taldeak, beren prensa oharrean argi uzi baitute <ez gaituztela udaletxetik ikusi nahi>".

» Altsasu

Larunbatean despeditu zuten Salvador

Zinegotzi sozialista bihotzekoak jota hil zen 67 urte zituela

Ostiralean hil zen Braulio Salvador Calvo, alarguna, bi alaba eta semea utziz. PSNren barruan ibilbide luzea egindakoa zen



Salvador: Nueva Izquierdako antolakuntza eta finantza idazkaria izan zen eta PSOEren sektore historikoko kide ohia ere. Altsasuko talde sozialistan hainbat ardura izandakoa da.

PSNren Altsasuko zerrendan bosgarrenaren eta joan den urteko garrilaren 26an hartu zuen zinegotzi kargua, Javier Donloren tokia hartuz, sozialistek hutsik zituzten bi aukietako bat betetz. Hasieran Altsasuko talde sozialistarekin tirabirak izan zituen, baina haien artean gauzak bere onera etorri ziren denborarekin. Ardura horregatik pasaden urtean festen hasierako etxajua pizteko ohorea izan zuen.

» Etxarri Aranatz

PPk faroletako ikurriak kentzeko eskatu du

Espainiako Vuelta herritik pasatu aurretik herriko hainbat faroletan Nafarroako bandera eta ikurriak jarri zituzten etxarriar talde batek. PPK Etxarri duen zinegotzi Juan Antonio Extremerak ikurriak "berehala kentzeko" eskatu du, "Nafarroaren benetako identitatea faltzuzten dutelako". Kexu azaldu da ere errotondan ikurriarekin batera Eskozia eta Kataluinako bandera izarduna dardelako. Aldi berean, PPK kideak bere burua eskaini du banderak jarri zituzten etxarriarekin bildu eta "Nafarroako eta haren banderen benetako historia azaltzeko".

» SAKANA

Preso eta iheslarien egoera agerian uzteko sormen lana

Atera proiektuko CD liburuxka Berria egunkariarekin eskuratu ahal izango da asteburuan

Makina bat dira presoaren egoerarekin lotura duten abestiak. Atera proiektuko kideek haietako batzuk aukeratu dituzte eta zenbait kolaboratzaileekin batera emanen dituzte. Hala CD bat osatu dute. Baina bere liburuxkan preso eta iheslarietako hainbat sorkuntza jaso zituzte, olerkiak, marrazkiak, testuak, besteak beste. Atera proiektuko diskoko dozena bat kantuetatik bitan musikari sakandarrek parte hartzen dute: Pello Reparaz Ken Zazpiren *Malen* kantuan ari da eta Hesian-eko Fran eta Zuriñe Etxakite *Gurekin* abestian parte hartu dute.

» Urdiain

LABek Viscofaneko kaleratze bat salatu du

Arrisku psiko-sozialen ondorio izan dela eta hainbat langile egoera berean ari direla lanean adierazi du sindikatuak

Viscofango langile baten "kaleratze disziplinarioagatik" protesta kontzentrazioa egin zuten LAB sindikatuko ordezkariak lantegi aurrean astelehenean. Enpresak kaleratutako langilea berritortzeko eskatu du LABek. Sindikatutik azaldu dutenez, "kaleratzea enpresan dauden arrisku psiko-sozialen ondorioa da. Langile multzo bat arrisku horrekin lanean ari da eta enpresak badaki". LABek jakinarazi duenez, haiez aparte zenbait langileek ere egoera sala-

tu eta idatziak aurkeztu dituzte.

LABetik Viscofani "bere produktio interesak lehenetsiz aipatu arriskuak ezkutatzea" leporatu diote; "neurriak hartu beharrean egoera hau jasaten ari direnak zigortzea erabaki du enpresak". Sindikatuak enpresari arrisku horiek desagerrarazteko prebentzio neurriak hartzeko eskatu dio. "Kasu hau iceberg-aren punta besterik ez da, konpondu ezean beste langile batzuek ondorioak izan litzake". Lantegian "gertakizun larririk egongo balitz enpresarena izanen litzateke ardura bakarra".



Sindikatu kideek lantegi atera eraman zuten aldarrikapena.

» Altsasu

Diegok Sarrigurenen hiri baratzak jartzea proposatu du

Baliabideen kudeaketa eraginkorragoa eta iraunkorragoa egiteko aukera emanen duela dio, NUPen, master akaberako lanean egin duen proposamenean

Luis Diego Diezek bere master akaberako lanean proposamen bat planteatu du Sarrigurengo ekohirian hiri baratzak jartzeko. Diegok esan duenez, "eredu alternatibo bat da hiri sarean baratzak jardueren bidez berdeguneen zati bat kudeatzea; eta horrek aukera ematen du baliabideen kudeaketa eraginkorragoa eta iraunkorragoa egiteko". Proposatutako diseinuaren gakoaren artean nabarmentzen dira diseinu erakargarri



Luis Diego Diaz. NUP

bat, lursail txikiak sortzea etxebizitzetatik hurbil, etxeetan sortzen diren hondakin organikoaren kon-

postatzea sartzeko aukera, eta baratzien hazkuntza beste labore batzuekin osatzeko aukera.

Altsasuarra nekazaritzako ingeniari teknikoa eta Ingurumen Zientzietan lizentziaduna da, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) batera eman duen Ingurumen Agrobiologiako Masterra egin du. Bere master akaberako lana, "Baratzak lorategiak hiri inguruan, proposamen bat Sarrigurengo ekohirirako", NUPeko Nekazaritzako Ekoizpen Saileko Natxo Irigoyen irakasleak zuzendu du.

Zergatik Sarriguren

Lanaren egileak Sarrigurengo ekohiria hautatu zuen "hiri iraunkorraren erreferente gisa sortu baitzen. Eraikuntza bioklimatikoa, energia aurrezteko, hondakinak kudeatzea, ingurumen hobekuntza eta halako irizpideetan oinarritzen zen planteamendua, eta honelako ekimen bat hobekien garatuko zen, azkenik gauzatu ez zen arren. Hala ere, Sarrigurenek berdegunea den eremu handia dauka, belardia dena, hiri baratzak horien proposamena abian jartzeko aukera ematen duena.

SAKANA

TopaEguna Derion

Biharko egun osoko egitaraua antolatu du Euskaltzaleen Topaguneak. Haren kide dira Irurtzango Aizpea, Altsasuko Kima eta Bierrik fundazioa

Eindaigun topa!

Leloa aukeratuda aurten Derion ospatuko den TopaEgunerako. Euskaltzaleen topaguneetan, herriz herri antolatutako mugimenduan, parte hartzen duten euskaltzale guztiei dago zuzendua eta lemak dioenez, euskaltzaleon, auzolanaren eta mugimenduaren alde topa egiteko jai eta truke-eguna izanen da. Azken horretarako euskaltzaleen elkarteetan azken urteotan interesgarriak izan diren bederatziko proiekturen aurkezpena egingo dute egitasmoon sustatzaileek. Baina mugimendu feministatik ikasteko aukera ere eskainiko die euskaltzaleei TopaEgunak. Euskal Herriko Euskaltzale guztiei gonbitea egiten die antolakuntzak bihar Derion bildu daitezten.



Egitaraua

10:30ean Harrera: Berbak erein.

11:00etan Esperientzien truke-gunea. Euskaltzale gazteen topaldia. Umegunea.

11:30ean Kale animazioa.

12:00etan Txango gidatua, kanposantutik.

12:30ean Aztarnak, feminismitik ikasten.

Kantu-jira.

13:00etan Batukada eta kilikiak.

Txakoli eta Boga garagardo dastatzea.

14:00etan Larrain-dantza.

14:30ean Bazkaria.

16:30ean Bazkalosteko kultur gindak. Irrien lagunak.

18:00etan Ekitaldia.

Puzgarriak.

18:30ean Erromeria: Fan&Go

Elektrotxaranga.

20:00etan Kontzertuak: Zizkamizka eta Gibelurdinek.



Denboraldi berria gazte-txokoan

Bihar arratsaldean zabalduko dituzte gazte egoitzak

Intxostiapunta gazte guneak denboraldi hasierako festa iragarri du biharko. 17:00etatik aurrera gazte egoitzatik pasatzen direnak pingpong, futbolin eta bilar txapelketetan parte hartu eta joko libreetan aritzeko aukera izanen dute. Ondoren, 21:30ean, afaria izanen da (3 euro). Ospakizuna Dj Sergeyren erritmora luzatuko da, 00:30era arte. Domeka arratsalderako, berriz, poker txapelketa iragarri dute gazte egoitzan.

ORDUTEGIAK

Gazte txokoa, 17:00etatik 21:00etara dago zabalik, asteazkenetik igandera; baita jai-egunetan ere. Intxostiapuntan ere Gazte Informazio Gunea ere badago. Hura astelehen, astearte eta ostegunetan 7:30etik 15:00etara dago zabalik eta asteazken eta ostiralean, berriz, 7:30etik 12:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Uharte Arakil

Euskararen alde kantu eta dantzan

Bihar, 10:30etik aurrera, lip-duba grabatuko da

Uharten Euskaraz Bizi Nahi Duguleloa zabalduko dute bihar hainbat uharterrek herrian barna. Izan ere, lip-dub baten grabazioaren plato bihurtuko dira bihar goiz-eguerdian Uharterko kaleak. Esne Beltza taldearen Euskaraz bizi

nahi dut kantua da aukeratutako doinua. Kalez kale kamera mugikor bat batetik bestera ibilikoda eta harenaurrean jarriko dira uharterrak, dantzan eta abestia kantatzen.

Guztia behar bezala atera dadin, 10:30ean hitzordua jarri dute plazan. Guztia egoki prestatu ondoren,

guztia grabatu egingen da. Lipdubaren grabazioa despeditzeko auzatea izanen da. Udaleko Euskara Batzordeak eta Galtz-orratz dantza taldeak lip-dubaren grabazioan aritzeko grabatzeko gonbitea luzatu diete uharterrei. Sakanako Mankomunitatearen laguntza du ekimenak.



Uharterrak plazan. ARTXIBOA

Altsasu



Euripean hainbat pertsona elkartu zire frankismoko biktimak omentzeko. Hasier Gonzalezek utzi zuen agerian plaka.



Omenaldia frankismoko biktimei

Domekan Altsasuko Udalak frankismo garaiko biktimak omendu zituen. Omenaldi ekitaldia Foru plazan dagoen Gure Etxea eraikinean egin zen. Bertan biktimen oroimenez plaka bat jarri zuten

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Ekitaldiari hasiera Garazi Urrestarazu alkateak eta Hasier Gonzalez EH Bilduko zinegotziak eman zioten, hitzalditxo bat emanez. Bertan gogorarazi nahi izan zuten frankismoak Altsasun kalte izugarriak sortu zituela, errepresaliatu eta hildako zerrenda luze bat utzi zuelako. Gainera, errepresioa jasan behar zituzten emakumeak

ere gogora ekarri zituzten, esanez emakume asko umiliatuak eta kartzelaratuak izan zirela erregimenari kontra egiteagatik.

Altsasuarrek mota askotako bidegabekeriak bizi izan zituztela adierazi zuten: "Batzuei agian kontzentrazio eremu hitzak entzutea arraroa egingo zaizue, baina altsasuar askok, kartzelaratuak izateaz aparte, kondena gehigarri asko bete behar izan zituzten, hala nola, deportazioak, dispertsioak, zigor batailoietan lan egin beharra. Hortaz landa, errefuxiatuei ere aipamena egin zieten, adieraziz Frantzia-

ra joandakoei ondoren beste errepresioaldi bat jasan behar izan zutela okupazio naziagatik.

Behin hitzaldia despedituta, Gure Etxea eraikinean plaka bat jarri zuten, faxismoaren ondorioz erailak eta errepresaliatuak izan zirenen guztien omenez.

Udalan adostasuna nagusi

Ekitaldiaren ondoren Garazi Urrestarazuk adierazi zuenez, ekitaldi honen inguruan alderdien arteko adostasuna lortzea erraza izan zela: "alderdi gehienak segituan jarri gara ados. Azken finean, Gerra Zibi-

lean alde guztietako biktimak egon zirenen, beraz, udaleko gehiengoak oniritzia eman dio ekimen honi".

Geroa Baiko zinegotzia den Unai Hualdek, bere aldetik, errekonozimenduaren bidean oraindik pauso asko emateko dagoela adierazi zuten: "Orain dela gutxi arte garai hartako biktimen errekonozimendurik ez da egin. Duela urte batzuk lan batailoietan ibili zirenak omen du genituen. Gaur beste aurrera pauso bat eman dugu, baina oraindik lan asko dago egiteko, batez ere garai hartako gauza asko ez direlako ezagutzen".



Altsasu Memoriak Emilio Iguzkiza gogorarazteko ekitaldia antolatu du

Etzi, 13:00etan, Gartzia Ximenez kalean izanen da, elizara daraman etxartean, Guardia Civil batek tiroz hil zuen lekuan

Asteazkenean 80 urte bete ziren Emilio Iguzkiza Guardia Zibil baten tiroak jota hil zela. Haren kasu ahaztua argitara atera du Altsasu Memoria taldeak eta urteurrena baliatuta omenaldia antolatu du.


Lastailean 80 urte bete ditu Asturiasko Iraultzak. Langileek greba orokorra egin zuten 1934ko udazken hartan. Haien helburua iraultza sustatzea eta sistema kapitalista sozialista bategatik ordezkatzzea zen. Nafarroan hainbat protesta eta atxiloketa izan ziren. Altsasun trenbidean eta argindar sarean sabotajeak egin

ziren. Atxilotuak ere egon ziren. Testu inguruan gertatu zen Iguzkizaren erailketa.

Gertakariak

Lastailaren 8 hartan manifestazio bat zebilen Altsasun barna. Hura bukatu aurretik Guardia Civila agertu zen eta manifestarien artean zegoen Constantino Salinas atxilotu zuten (udaleko zinegotzia zen eta sei hilabete lehenagora arte Foru Diputazioko lehendakari orde izana).

Iguzkiza Txoko taberna ondoren zegoen, espaloian, 14 hilabetezko Justu semea besoetan zuela. Atxiloketa ikustean oihuka protesta egin zuten: "ez dago eskubiderik! Erraz eramanen dute gizon bat



Omenaldiko kartel iragarlea.

bost guardia civilek!" Hori entzunda, guardia civilek batek gertutik, Gobernadore Etxeko sarre-

ratik, tiro egin eta heriotza zauriak eragin zizkion. Erortzean semea aitaren sabel gainean gelditu zen eta Jose Zornotzak jaso zuten. Iguzkiza, zauriturik, Txoko tabernan sartzen saiatu zen, baina atean hil zen.

Deikaztelukoa sortzez, Iguzkiza Urbasarako errepidearen erai-kuntzan lan egitera etorri zen Altsasura. Bertan gelditu zen. Alarguna eta bost seme utzi zituen. Ofizialki barne odol-jario bategatik hil zela adierazi zuten, gertarak zehaztu gabe. Erailketaren lekuko, berriki paretan berri duen arte, Guardia Civilak botatuko bi tiroen arrastoak ikus zitezkeen paretan eta beste bate-na izkinan.

GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com



Antxoni Lumbreras Santano

(Jose Luis Ojer Iñigo Aritzak ikastolako juntakidearen amaginarreba)

Urek ere ezin zehatz esan erreka nondik nora doan.



Iñigo Aritzak ikastolako gurasoak, ikasleak eta langileak



Antxoni Lumbreras Santano

Jose Luis kidearen amaginarreba

Altsasuko gaiteroak



Joxepa Imaz Mendiola



Nor da etxeko erregine?
Zu za.

Emaztie, ama ta amine.
Hartu diau ia zu bihotzan puxke.
Maite zaitugu. Guapa!!

Ciriaco Arenzana Aragones

Banekien betiko ez zela,
mila aldiz entzun izan dut hori.
Banekien inon ere ez dela
arantzarik gabeko arrosarik.

Iñakiren lagunak

Etxarri Aranatz.

Oroigarriak



Guaixe
KOMUNIKAZIOA

948 564 275

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua zorion@guaixe.net-era
edo hots egin
948 564 275 telefonora

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en doan
Guaixe astekarrian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Higiezinak

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Jatetxe-taberna alokatzen da Arbizon. 948 46 04 04.

Oparitakoak

Ortxi oparitzen dut ezin dudalako zaindu. Nahiko lasaia.

Bakarrrik egotera ohituta. Basoa gustuko du. Ongi konpontzen da jendearekin eta beste txakurrekin. Haurrekin patientzia du. Tel 680 10 65 89.



Opatutakoak / Galdutakoak

OPATUTAKOAK

Eguzkitako betaurrekoak. Urdiaingo San Pedro inguruan. Galdu dituenak hots egin dezala 646 65 41 26 telefonora.

Ikastaroak

Komunikazioa, autoestimua eta emozioen kudeaketa tailerra. Helburua: Komunikatzeko gaitasunen garapena lantzea. Holga Martinez de Lagran etxarriarrak gidatuko du. (Psikologian Dokorea). Non: Etxarri Aranazko Kultur Etxean Informazioa eta kontaktua: 639408118 Noiz: Urriari, egun eta ordutegiak zehazteke.

Zuzenean saltzeko estrategiak. Arbizon, azaroak 7an eta 14an. Ordutegia: 9:00 – 18:00. Argibide gehiago 948 56 70 10 telefonon eta sakana.admon@cederna.es posta elektronikoa.

AES. Enpresarako ingelera, irailan; BERRIA: Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua, urria-azaroa-abendua "Ingelera elkarriketa praktikak", Arbizon, 40 ordu, azaroa-abendua; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizon, abenduan "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala", Arbizon, 30 ordu, iraila-azaroa; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

Forem Navarra – CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Oharrak

EHEren zozketa. Edinburgon 2 lagunendako egonaldia 348 zenbakidun txartelak eskuratu du. Zenbaki sarituaren jabeak euskaltzale@euskalherrianeuskaraz.org e-postara mezua bidal dezala.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako

laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektu garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko diru bilketa hasi dute. Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpentak kontu korrantean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

Tartalariendako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrantean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzatzen: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpentak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurren erdituak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza_euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrantea zabaldu du. Rural Kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpentak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrantea zabaldu dute Nafarroako Kutxa: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarrekin denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko par-

JAIOTZAK

- Iñaki eta Mikel Mazkarian Irisarri, irailaren 26an Iturmendin.
- Danel Goikoetxea Ripa, urriaren 3an Urdiainen.
- Arhane Jimenez Lezea, urriaren 4an Altsasun.

EZKONTZAK

- Roberto Gonzalez Llorente eta Idoia Carrasco Zamarron, urriaren 4an Altsasun.

HERIOTZAK

- Julia Salgado Gutierrez, irailaren 30ean Altsasun.
- Braulio Salvador Calvo, urriaren 3an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

taide egiteko 50 euroko kuota bakarria eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arrosa, pasta, galletak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozipina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

FUTBOLA

SADARRERA PARTIDA IKUSTEKO BUSA BERTAN BEHERA: Partida egunetan Osasunako bazkideak autobusez Sadarrera

eramateko zerbitzua bertan behera utzi dute, Sakanako autobusa barne, ez omen dagoelako nahikoa eskaririk.

kirola >>

Atletismoa



Sakanako 14. Herri Lasterketan izena ematea zabalik

Urriaren 25ean jokatuko da, Irurtzunen. Urriaren 16a baino lehen merkeagoa da izena ematea

Irurtzunek hartuko du aurten Sakanako 14. Herri Lasterketa-Burundesa Sari Nagusia, Mank-ek antolatuta. Lastailaren 25ean izanenda, 17:00etan. Proba nagusia 7,5 km-koa izanenda, 17:00etan, eta kategoria txikiagoendako lasterketak jokatuko dira lehenago, 16:00etan.

LASTAILAREN 16A BAINO LEHEN, MERKEAGO

Izena ematea zabalik dago, lastailaren 24ra arte. Horretarako www.kirolprobak.com webgunera jo behar da. Txip horia dutenek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta egunean bertan izena ematen badute, 12 euro. Aldiz, txip txuria dutenek, alokairuzkoek, 11 euro ordaindu beharko dituzte aurretik izena ematen badute eta egunean bertan 13 euro.

Baina lastailaren 16a baino lehen izena ematen dutenen kasuan, txip horidunek 6 euro ordaindu beharko dute eta txip txuridunek 7 euro. Kategoria txikiok, aldiz, dohain dute parte hartzea. Probaren egunean bertan emango dute izena.



Altsasuko Onddo Lasterketa ate joka

Urriaren 18an izanen da, Altsasan, eta izena ematea zabalik dago

Altsasuko ferietan, lastailaren 18an jokatuko da 7. Onddo Lasterketa, 12:00etan (6,6 km). Aurretik, 11:00etan, 35. Eskola Arteko Lasterketa egongo da jokoan, kategoria txikiok lasterketak. Proba herrikoia eta ez lehiakorra da. Helburua Soroaunburu, San Pedroko Zelai, Txanponazpi, Basoiti... parajeet disfrutatzea da. Ez da sailkapenik ez saririk egingen. Feriei lotutako hainbat produktu lote zozketatuko dira.

Izena ematea dohainik da www.dantzalekusakana.com web orrian.



Pilota

Zabaletak Aritz Lasaren kontra debutatuko du lau t´erdian

Igandean, Lekunberrin, 17:00etan (ETB1)

Lau t´erdiko txapelketaren ordua iritsi da. Asteburu honetan final hamaseirenetako 4 kanporaketa daude jokoan. Jose Javier Zabalek kaiolan debutatuko du, atarikoan Mendizabal III.ari 22-18 irabazi dion Aritz Lasaren kontra. Partida igandean jokatuko da, Lekunberrin, 17:00etan (ETB1).

Lau t´erdian debutatzeagatik ilusionatuta dago Zabaleta. Asteazkeneko material aukeraketan azaldu zuenez, fisikoki eta eskuetatik ongi iritsi da lau t´erdira. "Inaxio Errandoneak txapelketan parte hartzeko aukeraren berri eman zidanean baiezkoa erantzun nion. Ilusio handia ematen dit. Egia esan, ez dut txapelketa behar bezala prestatzeko nahikoa denborarik izan, orain arte partida bat bestearen atzetik jokatutako dudalako, baina ongi iritea espero dut" adierazi zuen Zabaletak.

Lehen jardunaldiko gainontzeko partidatan, Jaunarenak Olaetxea izango du aurkari, Albisuk Beroiz eta Arretxe II.ak Retegi Bi.

Distantziara egokitzeko zailtasunak



Partidara Lekunberriko Jaian Jai pilotalekuan lau t´erdiko 3 entrenamendu espezifiko egin behar dira Zabaleta. "Atzelariek lau t´erdian nahikoa arazo izaten ditugu, bereziki behetik hasten garenok. Distantziara egokitzeko izugarri kostatzen zait. Sakea egiteko erraztasuna daukat, baina jokatzerakoan kokatzea eta tantoa bukatzea asko kostatzen zait. Ea entrenamenduekin hobetzen dudana" gaineratu du. Etxarregoa distantzia laburrean nola moldatzen den igandean ikusiko da. Dohainak baditu, baina Aritz Lasa aurrelariak esperientzia gehiago du kaiolan. "Lau t´erdian maila ona eman du urte askotan eta atariko irabaztetik dator. Konplikatu izango da, baina gauzak ahal den zailenak jarriko dizkiot" azpimarratu du Zabaletak. Material aukeraketan antzeko pilotak aurreratu zituzten bi pilotariek. Materiala aukeratzeko Fermin Eskuderoen laguntza izan zuen 23 urteko pilotari etxarrendarrak.

Ezkurdia zain

Lekunberriko norgehiagoka irabazten duenak, Jose Javier Zabale-

ta edo Aritz Lasak, Joseba Ezkurdia arbizuarra izango du zain, txapelketako final zortzirenetan.

Aizkora

Bederatzigarrena buruan

Nafarroako Lehen Mailako Aizkora Txapelketa irabazi zuen igandean Floren Nazabalek Etxarri Aranatzan, zituen arazo fisikoei aurre eginez

Etxarri Aranatzko ferietan jokatutako Nafarroako Lehen Mailako Aizkora Txapelketa, giro bikainean. Floren Nazabalek herriarren babesa gertu sentitu zuen eta eskerriak, igandean babes guztia behar baitzuen. Aspalditik disko-hernia batek arazoak ematen dizkio Etxarriko txapelkun handiari, eta igandean oinaze handiak izan zituen. Baina hortzak estutu eta finala bukatzea eta irabaztea lortu zuen, Nafarroako 9. txapela jantziz.

Bost aizkolarik lortu zuten finalerako txartela: Floren Nazabalek, Jon Rekondok, Ruben Saralegik, Ander Erasunek eta Oihan Larretxeak. Nazabal kenduta, aizkolarik gazteak ziren besteak, Rekondok 28 urte eta Larretxeak, Saralegik eta Erasunek 24 urte baituzte, aizkorak etorkizuna duen seinale. Ondok lana zuten aurrez: lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko erdibitza.

Hasieran, Nazabal eta Rekondo paretsu ibili ziren, baina lan erditan leitzararak arazoa izan zuen enbor batekin, trabatuta geratu zen eta denbora asko galdu zuen. Hor aurrea hartu zuen Nazabalek, eta garaipena lortu zuen (33:33). Hala

Ez da Euskal Herrikoan ariko



Nahiz eta Nafarroako txapela irabazi, ez zen garaipen erraza izan. Horren erakusle, etxarriarrek egindako denbora, beste batzutan baino gehiago. Nazabalek onartu zuen "izugarri sufritu" zuela, disko-hernia horrek arazoak ematen dizkiola eta ezingo duela lastailaren 25ean jokatuko den Euskal Herriko Maila Nagusiko Aizkora Txapelketako finalean aritu, ezingo duelako behar bezala entrenatu eta "horrela ezin delako parte hartu".

ere, 2 minutuko errenta aterazioan Jon Rekondori (35:46). Hirugarren postua lortzeko lehia oso polita eta estua izan zen eta azkenean, sorpresaz, Oihan Larretxea izan zen hirugarrena (36:34); Ruben Saralegi laugarrena (38:04) eta Ander Erasun bosgarrena (40:39).

Bederatzi eta sei

Nafarroako 9 txapel dituzte etxarriarrek, eta Euskal Herriko 6. Tamalez, dituen arazoak direla medio ezingo du Euskal Herriko 7. txapelgatik borrokatu. Bere lekua Ander Erasuni legokioke.

Aizkolarien erakustaldia igandean Arbizuko Txistor Egunean

17:30ean Arbizuko plazan: Igandean Arbizuko Txistor Egunean antolatutako programaren barruan, aizkolarien erakustaldia izango da, arratsaldeko 17:30ean Arbizuko plazan. Josu Agirre, Mikel Agirre, Joan eta Goizeder Beltza aizkolaria ariko dira lanean.

Kiroldedia



Fibromialgia eta neke kronikoa duzutenok adi!

Jarduera fisiko espezifiko eskainiko du Mank-ek Altsasan eta Irurtzunen. Izena ematea zabalik dago

Mank-eko Kirol Zerbitzuak, AFINA (Nafarroako Fibromialgia Elkarte) elkartearekin batera, fibromialgia, neke kronikoaren sindromea eta sentiberatasun kimiko anizkoitza duten pertsonen osasuna hobetzeko jarduera fisiko espezifiko eskainiko die Altsasan eta Irurtzunen. AFINAk ikastaroan izena ematera animatu du, "euren egunerokotasunean hobekuntza" nabaritu du dutelako.

ORDUTEGIA ETA TOKIA

Aipatu ikastaroa edo soinketa Altsasan (Labaderon) eta Irurtzunen (Kultur Etxean) eskainiko da, urritik ekainera, asteartean eta ostegunetan. Altsasan 16:00etatik 17:30era eta Irurtzunen 10:40etik 12:10era.

IZENA EMATEA ZABALIK

Hots egin Mank-eko Kirol Zerbitzura (948 464 866, kirolak@sakanamank.com). AFINAko bazkideek 31 euro hiru hileroko, eta bazkide ez direnek 42 euro hiru hileroko.

Mendi txirrindularitza



Bilbo-Muskiz Sakanako bikerrekin

Urriaren 26an, Mank-ek antolatuta, bide gorri ederrean barna

Mank-eko Kirol Zerbitzuak, Burunda Txirrindularitza Taldearen laguntzarekin, mendi bizikleta edo BTT bizikleta ibilaldia antolatu du lastailaren 26rako. Bilbotik hasita Muskizeraino joatea da asmoa, bide gorri jarraituz, La Arenahondartzan hasi eta bukatuta. 55 km-ko ibilaldia da, zailtasunari dagokionez ertaina-erraza. Autobusa goizeko 7:00etan aterako da Altsasuko geltokitik. Ibilbide polita da, bide gorria, primerako paisajeekin. Bertan bazkalduko da. Sakanadarrak animatu nahi dituzte, bizikletahartuta Bizkaiko ibilbide hau egiteko.

IZENA EMATEKO

Lastailaren 22a baino lehen Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakanamank.com) edo 686 457 048 telefonoan. Prezioa: 10 euro.

Mendi lasterketak

Sakandarrak Etxarri Aranazko 39. Mendira Joan Etorrian:

1.	Mikel Beunza	46:24
4.	Jose Luis Beraza (Uhar)	47:39
5.	Aritz Munarriz (Etx)	48:01
8.	Beñat Katarain (Lak)	49:12
12.	Jose Jabier Maiza (Etx)	50:19
13.	Ander Unzurrunzaga (Etx)	51:04
14.	Gorka Santesteban (Etxarren)	51:10
15.	Mikel Rubio (Iruur)	51:28
16.	Aritz Ganboa (Arru)	51:44
17.	Julen Paniagua (Urd)	52:13
18.	Mikel Satrustegi (Arru)	52:38
21.	Mikel Berastegi (Arb)	53:11
25.	Mikel Sasiain (Etx)	53:58
27.	Fran Araña (Arb)	54:27
28.	Adur Senar (Lak)	54:30
29.	Mikel Perez de Eulate (Etx)	54:34
30.	Iraitz Senar (Lak)	54:45
36.	Santi Galarza (Iturm)	55:28
41.	Andoni Azanza (Alts)	56:59
42.	Iker Flores (Urd)	57:06
44.	Iñaki Miranda (Etx)	57:55
46.	Asier Urkia (Etx)	58:34
49.	Juan Luis Maiza (Etx)	58:57
50.	Iñigo Maiza (Etx)	58:57
51.	Izaskun Beunza (Olaz)	59:09
56.	Bernando Garziandia (Etx)	59:38
57.	Juan Mariñelarena (Etx)	59:39
58.	Juan Carlos Gomez (Alts)	60:13
60.	Bautista Barandalla (Etx)	60:23
65.	Mikel Beloki (Etx)	61:16
66.	Iban Verdugo (Etx)	61:24
68.	Arkaitz Munarriz (Etx)	61:49
75.	Maite Zabaleta (Etx)	63:27
78.	Juan Daniel Lakuntza (Etx)	64:20
80.	Erkuden San Martin (Etx)	65:07
81.	Raul Mozo (Etx)	65:19
89.	Aiora Arrizabalaga (Etx)	68:11
91.	Eneko Olarra (Etx)	69:03
95.	Maria Goikoetxea (Etx)	71:11
99.	Patxi Atxa (Etx)	74:39

104 korrikalarik parte hartu zuten 39. Mendira Joan-Etorrian, 39 sakandarrek. Olazti-Urvasa lasterketan bezala, Jose Luis Beraza uhartearra eta Izaskun Beunza olaztiarra izan ziren sakandar onenak

Igandean fresko esnatu zen Etxarri Aranatz, korrika egiteko eguraldi aproposa. Panorama horrekin hartu zuten irteera, Etxarri Aranazko plazatik, 39. Mendira Joan Etorrian parte hartu zuten 104 korrikalariak. Udaberri elkarrekin antolatzen zuten lasterketa, Etxarri Aranazko Udalaren eta Nafarroako Mendi eta Eskalada



Irabazleak eta sarituak, sari ematean. Lehen sakandarrak Jose Luis Beraza eta Izaskun Beunza izan ziren.

Beunza eta Amilibia azkarrenak Etxarrin

Federazioaren laguntzarekin. Aldi berean Etxarri Aranazko feriako azoka ospatzen zenez, jende asko hurbildu zen helmugara eta giro oso polita izan zen.

Etxarriko plazatik abiatuta Urvasako Bargara igotzea zen erronka, Maiatza jartzen duten tokira, buelta hartu eta atzera ere Etxarri Aranatzera jaisteko. 10 km-ko proba da, motza baino gogorra, 572 metroko desnibela duena. Lasterketa 1975. urtean hasi zen ospatzen, lagun arteko apustu bat tarteko, eta aurtengo edizioa 39.a zen, Nafarroako Mendi Lasterketen Koparako azken proba puntuagarria.

Parte-hartzea gaintu zen, 2013an 88 korrikalari aritu baitziren. Aurten 104 izan ziren, eta

horietatik 99 iritsi ziren helmugara. Lehia bizia izan zen lehendabiziko postuetan eta azkenean Alkotzeko Mikel Beunza gailendu zen (46:24), Julen Martinez de Estibariz gasteiztarrari 17 segundo aterata (46:41). Fernando Etxegarai beratarrak osatu zuen podiuma (46:59). Beunzak azalduenez, bera hobea da igoeratan eta igoeran hartu zuen proba irabazteko behar zuen abantaila. Beunzak ez zuen lortu Juan Mari Garinek 2001ean ezarritako errekorra gainditzea (42:50). Laugarren postuan sartu zen Jose Luis Beraza uhartearra, sekulako denbora eginez (47:39). Probako lehen sakandarra izan zen. Bere atzetik, 5. postuan, Aritz Munarriz sartu zen (48:01), probako lehen etxarriarra.

Emakumezkoetan Nerea Amilibia aiatarra gailenduz (57:36), Etxarri Aranatz bere 5. garai-pena lortuz. Minutu bat atera zion Virginia Perez gasteiztarrari (58:36). Izaskun Beunza olaztiarra osatu zuen podiuma (59:09). Beunza izan zen lehen emakume sakandarra. 4. postuan iritsi zen helmugara Maite Zabaleta (63:27), probako lehen etxarriarra.

39 sakandar

Aipatzekoa da proban 39 sakandar lehiatu zirela, etxarriar asko tartean. Badirudi mendi lasterketek geroz eta zale gehiago dituztela gurean. Korrikalari guztiek oroigarria jaso zuten eta sari ematea kioskoan egin zen. Ondoren, auzate ederra egon zen korrikalariendako.

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

4. JARDUNALDIA
LAGUN ARTEA 0 - MENDI 0
Partida oso lehiatua izan zen, aurrelarien artekoa baino, atzelarien artekoa. Lagun Arteak gol aukera gehiago izan zituen. Unai Bakaikoak aukera garbiena izan zuen partida bukaeran, baina puntu berdinketarekin despeditu zen partida.

Sailkapena >>

1.	Baztan10 p
8.	Lagun Artea5 p

Asteburuko jardunaldia
GARES - LAGUN ARTEA
(Larunbatean, 16:30ean, Garesen)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

5. JARDUNALDIA
ETXARRI ARANATZ 4 - AUERRERA 2
ALTSASU 1 - LEZKAIRU 1
Etxarrin, 20. minutuan Aurrerak gola sartu zuen, baina 5 minutura berdintzea lortu zuen Luisek. Penalty bati esker, 1-2 aurreratu zen Leitzako taldea, baina atsedendiaren ondoren Etxarri partidari buelta eman zion eta Xabatek, Pablok eta Mikelek sartutako golekin 4-2 irabazi eta lidergoa sendotu du Etxarri. Dantzalekun Altsasuk eta Lezkairuk jokatutako partida oso estua izan zen. Berastegik Altsasuren aldeko gola sartu zuen, baina partida baino lehen berdintzea lortu zuen Lezkairuk.

Sailkapena >>

1.	Etxarri Aranatz13 p
8.	Altsasu8 p

Asteburuko jardunaldia
BURLADES - ETXARRI ARANATZ
(Igandean, 17:30ean, Ripagainan)
ARROTXAPEA - ALTSASU
(Larunbatean, 16:00etan, El Iratrin)

Areto futbola



Eta orain... Bartzelona

Bartzelona hartuko du Magna Nafarroak bihar, larunbatean, 18:00etan, Anaitasunan

Bartzelona hartuko du bihar Magna Xotak. Bartzelona hirugarrena da sailkapenean (9 puntu), txapelketako oilarrerako bat, eta Magna 7.a da (6 puntu). Horregatik, Bartzelona da faborito, baina talde handien aurrean hazi egiten da Magna eta ea irurtzundarrak sorpresa eman eta 3 puntuak etxean uzten dituzten.

XOTAREN JARRAITZAILE KARNETA

Irurtzungo areto futbol klubak Xota jarraitzaile karneta sortu du (10 euro). Xota kluba laguntzeaz aparte, trukean, Xota klubaren giltzarria jaso du jarraitzaileak eta puntako hainbat dendatan (Bombones Torres, Bodegón Sarria, Flores Nuñez, Koldo Ruperez fotografo, Maialen ile-apaindegia, Vorago moda, Elektra, Senda Viva...) deskontuak.

MAGNAK BESTE URTE BATEZ BABESTUKO DU XOTA

Magnesitas de Navarra enpresak beste denboraldi batez jarraituko du Xotako babesle izaten. Hala ere, Xota oraindik babesle gehiago lortzeko lanetan murgildua dabil, taldearen aurrekontua borobildu ahal izateko.

Mendia

Partaidetza jendetsua Nafarroako Mendiko Kluben egunean

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Igandean Nafarroako Mendiko Kluben eguna ospatu zen Altsasun. 12. edizioa izan zen, Altsasun jarraian ospatzen den bigarrena. Eguraldi nahiko petrala egin zuen arren, mendizale ugari bildu ziren Foru plazan, haritz artean egun atsegin bat igaro asmoz. Bi ibilbide izan zituzten aukeran: bata 14 kilometro ingurukoa, eta bestea 21 kilometrokoa. Ibilbideak antolatzeaz Dantzaleku Sakana taldea arduratzen (besteak beste, seinaleak jarri zituzten jendea gal ez zedin).

Bi ibilbideak goizeko 9:00etan hastekoak ziren, baina minutu batzuk atzeratu behar izan zuten, zenbait autobus atzerapenarekin zetozelako. Altsasuko alkateak hasiera emanda, mendizaleek ibiltzeari ekin zioten. Batzuk bizi-bizi

ibili ziren ibilbidean barna; beste batzuek, ordea, nahiago izan zuten erritmo lasaiagoan joan eta basoaren edertasunaz gozatu. Ibilbide luzea egin zutenek San Pedrotik Araniara, hortik Aitzarera eta bertatik Intsusburura joateko aukera izan zuten. Ibilbide motza egin zutenak, beren aldetik, Araniara iritsita zuzenean Urdiaingo igerilekue-tara jaitsi ziren, bertatik Sarabe bailara zeharkatzeko (bertan ibilbide luzeekin gurutzatu ziren).

Ibilbideak bukatuta, hamaiketako eskaini zitzaizkien mendizaleei. Ondoren, bazkalorduan, parte hartzaileak zein festara batzeko gogoia zutenak Zelandin bildu ziren, autogestionatutako bazkari-az gozatzeko. Antolakuntzak jarritako musikaz lagunduta giro ederra izan zen.

Bazkariaren ostean, omenaldia



Bazkaria amaitu zenean, omenaldi ekitaldiari ekin zitzaion. Aurtengo omendua Antonio Salgado mendi korrikalaria eta Altsasuko Mendizaleak taldeko sortzailetakoak diren Pello Iglesias, Luis Mari Lopez eta Andres Bengoetxea izan ziren. Bengoetxea omendua izateagatik harrিতuta agertu zen: "Sorpresa handia izan da niretzat, ez nuen halakorik espero. Omendua izateak asko suposatzen du niretzat, azken finean urte hauetan guztietan egin dudana lan guztiaren aitortza baita". Iglesiasek, bere aldetik, egunaren balorazio baikor bat egin nahi izan zuen, esanez horrelako egunei esker urtean zehar mendian ikusten diren mendizaleak elkartu egiten direla. Hau ere omenaldiagatik txundituta agertu zen: "Ez nuen halakorik espero. Azken finean, mendizale bat besterik ez naiz, gainontzekoek bezala mendiaz gozatzen duena. Ez dut halakorik merezi, baina oso eskertuta nago". Bengoetxeak zein Iglesiasek bat egin zuten esatean Altsasun mendizaleetako egoera oso ona bizi duela, baina, era berean, praktika oso indibidualizatu bat bilakatu dela. Bengoetxearen arabera, lehen mendizale gehienak taldeka joan ohi ziren mendira, baina orain espiritu hori galdu egin da: "Gaur egun taldeen biziraupenaz soilik beteteranoak arduratzen gara. Egungo gazteek nahiago dute bere kasa joan. Hala ere, guk lanean jarraituko dugu, mendizale taldeek bizirik jarrai dezaten".

Automobilismoa

30 urteko lehen garaipenaren ondoren, Egozkue azkarrena Urbasan

60 PILOTU LEHIATU ZIREN URBASAN, GIRO PAREGABEAN, ETA GARIKOITZ FLORES LAKUNTZARRA LAUGARRENA SAILKATU ZEN

Sakandarrak Urbasako igoeran

1.	Pantxo Egozkue (Silver Car S2)	3:23.195
4.	Garikoitz Flores (BRC)	3:28.771
9.	Iñigo Zelaia (Leon)	3:57.351
13.	Arkaitz Irigoien (Renault 11 Turbo)	3:59.137
18.	Garikoitz Goñi (Renault 11 Turbo)	4:02.861
26.	Andoni Lopez de Sabando (BMW 325)	4:12.991
31.	Oier Larrañaga (AX)	4:17.497
35.	Asier Lopez de Sabando (BMW 325)	4:23.581

Beste behin, arrakastatsua izan zen Urbasako Igoera. Aurten 34. edizioa bete zuen proba veteranoak eta 60 pilotuk hartu zuten parte. "Krisia nabaritzen da, urrezko garaietan 80 pilotuen tokia berehala agortzen baitzen. Baina kontuan hartuta soilik Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako baliagarria dela, handia da parte hartzea" adierazi zuen probako komisarioetako batek. Sakana Motorsport taldeak antolatu zuen proba, Olaztiko Udalaren, Maisuenea gaztetxearen, Bierrik fundazioaren eta hamaika komertzio eta babesleren laguntzarekin.

Proba jarraituz zale ugari hurbildu ziren. Askok gaua egin zuten Urbasan. Janaria, edaria, eguzkitakoak, haimak eta guztiz hornituta, egun pasa bikaina egin zuten, pilotuak etengabe animatuz. Olazti eta Zudaire arteko NA-718 errepidean jokatu zen lasterketa, 38,050 km puntutik 32,220 km puntura, Olaztitik hasita Urbasako portura itzo arte. 5,72 km-ko ibilbidea zuten aurretik pilotuek, eta ziztu bizian igoziren. Entrenamenduz gain, bi manga osatu behar izan zituzten.

Flores laugarrena

Zaleek lehia estua espero zuten **Arkaitz Ordoki** (Silver Car S2) eta



Garikoitz Flores, entrenamendu bikaina burutu ondoren. Behean, ezkerrean, Iñigo Zelaia. Bakaikoarrak lan ederra egin zuten.



Erdian Iban Lopez, motorra begiratzen, Arkaitz Irigoien eta Oier Larrañaga alboan dituela. Goian Garikoitz Goñi.



Joseba Iraola (Demon Car) pilotuen artean, baina azkenean **Pantxo Egozkue** pilotu veteranoa (Silver Car S2) izan zen azkarrena Urbasan gora (3:23:195). Duela 30 urte Urbasan bere lehen garaipena lortu zuen Egozkuek, eta hiru hamar-

kaden buruan lehen mailan jarraitzen duela erakutsi zuen pilotu nafarrak. Ordoki izan zen bigarrena (3:23:983) eta Iraola hirugarrena (3:25:742). Sakandarrei dagokienez, **Garikoitz Flores**ek Joseba Iraolaren formula batekin estreinat

zen (BRC) eta lan bikaina egin zuen lakuntzarrak: proban laugarrena izan zen (3:28.771), lehen sakandarra. "Haur bat zapata berriekin bezala nago auto honekin. Jostailu bat bezalakoa da, play-arekin auto bat gidatzen ariko bazina

117, zenbaki saritua

Sarrerarekin batera bi lagunendako bazkaria zozketatu zen Altsasuko Iru-Bide jatetxean. 117 izanda zenbaki saritua. Irabazlea jarri dadila Bierrik fundazioarekin harremanetan (618 88 26 75, 948 564 275).

bezala. Zoragarri da" zioen lakuntzarrak entrenamenduen ondoren. Halako auto batekin lehen aldia zenez, autoa ez zuen nahikoa ezagutzen eta ezin izan zion nahi zuten zuku guztia atera, baina pozik zegoen lakuntzarrak. Halako auto bat hartzen zuten lehen aldia izateko, lan bikaina.

Sakandarrak ongi

Garikoitz Floresen ohiko autoarekin Iñigo Zelaia bakaikoarra aritzen (Seat Leon). 15 urtez lehiatu gabe aritu ondoren, errepidera itzuliz berriro Zelaia eta meritu handiz, 9.a sailkatu baitzen. "Oso gustura nabil. Ez dakit berriro ere zotenaizengantxatu..." zioen bakaikoarrak, irribarrez. Izan ere, lan ona egin zuten pilotu sakandarrek. Renault 11 autoa erabiltzen duten **Garikoitz Goñi** eta **Arkaitz Irigoien** ere pozik zeuden Urbasan. "Pixkat urduri gaude, beti gertatzen zaigu, baina etxeko karrerak korritu behar dira. Jende asko dago eta giro polita" zioten biek. **Andoni eta Asier Lopez de Sabando** anai altsasuarrek proba bukatzea lortu zuten, **Oier Larrañaga** bezala. Aldiz, **Iban Lopez de Goikoetxea** olaztiarra (Renault 5 GT Turbo) ez zegoen batere kontentua. Entrenamenduetan ez zen igo, eta nahiz eta lehen manga burutu, bigarrenen ez zen atera, pistoi bat apurtu zitzaioke. "Zelako hilabetea! Aurreko asteko Zeberio-Arteako Rally Sprintean Ford Focusa apurtu genuen eta orain Renault 5-arekin matxura!" zioen pilotu olaztiarrak. Triste zegoen jaioterrian lasterketa bukatu ez izanagatik.

Gure produktu berriak Txistor Egunean salgai

Arbizu
Embutidos y Pates

PANCETA ADOBADA
Para freír, asar o cocer

948 460 628 • Utzubar industrialdea, E kalea 1-2 • Arbizu

kultura >>

Gurasoek Nafarroako haurkantzak eta jokoak ikasteko

Euskara Zerbitzuak Xaldun Kortin materialean oinarritutako ikastaroak eskaini ditu dohainik

Garai batean aiton-amonek umeekin erabiltzen zituzten kantak, jolasak, ipuinak, hitz-jokoak eta beste biltzen ditu *Xaldun Kortin* materialak (liburua, CDa eta DVDa). Nafarroakoak guztiak eta dagoeneko herrietako liburu-dendetan salgai dagoena.

Sakanako Mankomunitateko Euskara eta Immigrazio Zerbitzuek material horretan oinarritutako tailerrak antolatu ditu. 3



urte bitarteko umeen gurasoei zuzenduta daude, baina irakasleek, begiraleek, hezitzaileek eta beste ere izena eman dezakete. Bi tailer izanen dira eta batera edo bestera joateko aukera izanen da. Dindaia fundazioak emanen ditu tailer horiek eta bitartean haur-tzaindegi zerbitzua izanen da.

Tailerrak

Irurtzunen

Azaroaren 5ean, asteazkenean, 10:00etatik 12:00etara kultur etxean. Izen-ematea urriaren 31ra arte.

Olatzagutian

Azaroaren 19an, asteazkenean, 9:30etik 11:30era ludotekan. Izen-ematea azaroaren 14ra arte.

Izen ematea

Lehenengo tailerrera epea hilaren 31n despedituko da. Bigarrenekoa, berriz, azaroaren 14an. Hotsegin 948 464840 edo 648 070 710 telefonora edo euskara@sakana-mank.com edo immigrazio@sakana-mank.com e-posta-ra idatzi.

Ikasgelatik zinemara



Aralarko Mikel Donea institutuko, Sagrado Corazon ikastetxe eta Andra Mari ikastolako bigarren hezkuntzako ikasleak Educactif saioetan parte hartuko dute

Iruñeko XV. Zinema Jaialdia astelehenean hasi eta bihar despedituko da. Bere baitan Educactif saila du, Nafarroako DBHko eta Lanbide Heziketako ikasleei zuzenduta dagoena. Aurreko urteetan bezala, aurtengoa ere Educactif programa Sakana-ra iritsiko da. Atzo eta gaur ibarreko ikasle gazteak Altsasuko Iortia kultur gunetik pasako dira.

Zinemaren bidez balioak zabaltea da Educactif sailaren helburua. Horretarako izaera sozialeko eta hezkuntzako filmak (animazioa, fikzioa eta dokumentala) hautatu ditu antolakuntzak. Guztiak ere gaurkotatuzko zortzi gaietan sailkatuta. Emanaldi bakoitzaren aurretik, dinamizatzaileek gaia aurkezten dute. Ondoren, proiektzioa izanen da eta, despeditzeko, gaian adituan den pertsona batekin iritzi trukaketa izanen da.

Zinemaldiko spot sakandarra

Aurtengo Iruñeko Zinema Jaialdiko iragarkia Sakanan egingo dago. Animatika 3D enplegu tailerretan egin dute ikasleek, Urko Mauduiten begiradapean.

Sakanan

Atzo, 9:30ean, adikzioari (droga kontsumoa edo teknologia edo jokoena) buruzko saioa izan zen. Lau film labur ikusiko dituzte 183 ikasleek: *Wo wir sind, 30 segundos, Morir cada día* eta *0,60 mg*. Gaurko aurreneko saioa lan egoeraren ingurukoa izanen da eta hizketarako gaia *Tu p**to banco, Changuís, Tupper* eta *Un día de estos* film laburrek emanen dute. 142 ikasle izanen dira aretoan. Eta, despeditzeko, gaur eguerdikoa sexualitatea tabu izaten segitzen duen galdetuko du. Gaia girotzeko hirulan: *Yotro año, perdices, Hoy quiero confesar* eta *Sájara*. Azken saio horretan 156 ikasle izanen dira.

Altsasuko zinema saioa proiektore berriarekin hasiko da gaur

Areto nagusian filmak formatu digitalean emanen dituzte. Aldaketak film gehiago eskaintzeko aukera emanen du, pelikulan beharrean digitalean banatzen baitute ekoizte-eteek

Pasa den astean hasi ziren Altsasuko Iortia kultur gunean zinema proiektore digital berria jartzeko lanak. Areto nagusiko kontrol gelan lanean asteartera arte izan ziren. Kultur etxe-ko langileek herenegun trebakuntza saioa jaso zuten. Gaurtik aurrera proiektore digital berriarekin eskainiko dituzte Iortia kultur gunean gaurkotatuzko eta familiarreko filmak. Udalak 42.400 eurogatik (BEZ kanpo) erosi dio proiektorea Técnica Cinematográfica Loza enpresari.

Zinema ekoizte-eteek eta banatzaileek gero eta film gutxiagoren kopiak egiten dituztela 35 mm-ko pelikulan. Digitala da nagusi, merkeago delako. Joera horrek Altsasuko kultur gunean hainbat film eskaintzeko aukera gabe utzi zuen. Areto handian proiektore digitala jarrita, areto txikian oraindik ere 35 mm-ko proiektorea segituko du; film banatzaile txikiek oraindik ere 35 mm-ko pelikula banatzen dituztelako oraindik.


Merkeago

Zinema zaleek deskontuak eskuratzeko aukera izanen dute Iortian. 3 sarrerako bonuak (12 euro, hilabeteko iraupena), 5 sarrerako bonuak (20 euro, hilabeteko iraupena gehienez bi sarrera emanaldiko) eta 8 sarrerako bonuak (30 euro, bi hilabeteko iraupena gehienez bi sarrera emanaldiko) salgai dituzte. Gainera, haurrendako filmak eta beste ikuskizunak bateratzen dituen bonuak badaude.

Arretxe kantaria

Aski asko ezaguna da Jon Arretxe arribuarraren idazle ogibidea. Askok ez dakitena da abesbatza batean ere kantari ari dela. Premier Ensemble abesbatzan ahots baxua da bere korda. Abesbatza hori, Nafarroako Orkestra

Sinfonikoarekin eta hainbat abeslari protagonistekin batera Marina obra eskainiko dute. Garesko Emilio Arrieta sortzailearen obra da, bere heriotzaren 120. urteurrenaren Iruñeko Gaiarre antzokian emanen dena, atzo eta bihar.



Txistor egunean etorri gure menua probatzera!



Eguneko menua
Menu berezia
Kafetegia egunero zabalik

Olatzea
Landa Hotela • • • Hueso Rural

info@hotelolatzea.com • www.hotelolatzea.com
Errota kalea z/g • Tel.: 948 46 18 76 • Fax: 948 46 18 77 • 31829 Arbizu (Nafarroa)

eskuratu Guaixerekin musikagile handiaren 5 diskoen bilduma

25€
bazkideak 22€

eskaera egiteko azken eguna!

Felipe Gorriti
(Uhartu Arakil, 1839 - Tolosa, 1896)

Uhartu Arakilgo musikariaren jaiotzaren 175. urteurrena

eskaerak bierrik@guaixe.net / 948 564 275 / 562 107

bazterretik

Aritz Viñas



What

Kaixo lagunok! Berrero ere hementxe gaude, eta oraingoan komedia-musikal bati buruz hitz egin nahiko nuke. Komedia honen izena *What*. da eta bai nahiz eta ingeleraz egon, nik ikusi dudana komedia ikuski-zunik onenetariko da. Bo Burnham-en eskutik datorkigu ikuskizun hau, 24 urteko Ameriketako komediantea, abesti idazlea eta kantaria eta aktorea. 2008an argitaratu zuen bere lehenengo EP-a, *Bo Fo Sho*, Comedy Central Record-ekin 4 disko ateratzeko kontratu sinatu zuenean. Bere lehenengo disko 2009an argitaratu zuen, *Bo Burnham*. 2010ean bere bigarren diskoa argitaratu zuen *Words Words Words* izenburupean, eta honekin batera bere lehenengo Show-ari hasiera eman zion. Bere hirugarren diska *What*. izenekoa da, eta honekin batera ere bigarren ikuskizuna egin zuen. Gaur bere bigarren ikuskizunari buruz hitz egin nahiko nuke. *What* ikuskizuna komedia ikaragarri ona dela esan dezaket. Bertan dantza, musika, poesia eta txistek nahastu egiten ditu era bikainean. Dena politikoki onargarriak ez diren bromekin. Ordu bateko ikuskizun batean, 13 kanta sartzen ditu, poemak eta hainbat gag ezberdin. Bertan autokontzientziaren gaia jotzen du *Left brain, Right brain* (Ezkerreko burmuina, Eskuineko Burmuina) abestiarekin, eta musikari buruzko kritika egiten du bere *Repeat Stuff* (Gauzak Errepikatu) abestiarekin. Azkeneko abesti honetan musikari egitendion kritika nabaria da. Oraingo musikaren egoerari buruz hitz egiten du, nola gaur egun egiten diren abestiak, abesti hutsak diren.

Youtuben

Bere ikuskizunetan zuzenean jotzen ditu abesti batzuk, eta grabatutako beste batzuekin jendearekin zuzenean harremanetan jartzenda. Azkenik, esan beharra dago, ikuskizun hau ikusteko gogoia piztu baldin badut Youtuben eskuragarri dagoela. <http://www.youtube.com/watch?v=ejc5zic4q2A> *What. Bo Burnham* bilatuz bere Show osoa ikus dezakegu. Bideo hau berak argitaratu egin du nahi duen guztiak ikus dezan, eta gaztelaraz azpigituluak dauzka, beraz ingeleraz egotearen beldurra kendu eta egin klik.

Una aventura en la basura izeneko antzezlan hiru garrenez, Ihabarren

Jon Barbarinen gidaritzapean, herriko bizilagunak izanen dira protagonista. Bihar, 20:00etan, Ihabarko plazan

Zazpigarrenez aritu dira Ihabarko eta inguruko herrietako zenbait bizilagun antzezlan prestatzeko. Jon Barbarinek ikastaroa ematen die hilabete batzuek eta uda akaberan erakutsi ohi dute jendaurrean ikasitakoa. Antzezlan ugari eginak dituzte dagoeneko eta oraingo honetan, *Una aventura en la basura* izeneko obra eskainiko dute. Abuztuaren bukaeran bezala, larunbatean Ihabarko plazan egingen dute antzezlan. Arratsaldeko zortzietatik aurrera, antzerkiaren magian murgilduko da Ihabar.

Una aventura en la basura imaginazioa lantzen du. Kale garbitzaileak ditu protagonista. Auzolanean ari dira; herria garbitzen ari direla, euren lan gogorretik urrundu nahian, irudimenezko mundua irudikatzen dute. Abentura hainbat sortzen dute euren buruetan. Ekologiari buruzko hausnarketa bat ere plazaratzen dute. Kutsadurarekin zerikusia duten gaiak aztertzen dituzte eta gai mardulagoetan ere sartzen



UTZITAKOA

dira: kritikak egiten dizkiete egungo krisi ekonomikoa eragin dutenei edota errege-etxean gertatzen ari denari. Irudimena, parodia eta kritika uztartzen ditu obrak.

Duela urte batzuk Pinpilinpauxa taldearekin antzezle izan zen Jon Barbarin halako obra batean. Gerora, Angel Sagues antzerki zuzendariak moldatu zuen obra eta, oraingoan, Barbarinek bere modura bertsionatu du azken hori. Emaizta, larunbatean ikusi ahal izanen da Ihabarko plazan. "Kale antzerkia da, dibertigarria eta erregistro berriak ikasteko aukera izan dute parte-hartzaileek. Hizkuntza mota desberdinak tarikatzen dira eta bakoitzak bere

Arrakasta duen ikastaroa

Aurten ere aukera izanen da antzerkia egiten ikasteko. Azaroan abiatuko da ikastaroa eta aurten ere Jon Barbarinek gidatuko du. Oraindik ez du zehaztua zein obrarekin bukatuko duen jarduna, baina, eszena txikietan oinarritutako lana egitea du buruan. Modu horretan, behin baino gehiagotan eskaini ahalikodute eta leku txikiagoetan aritzeko aukera ere izanen lukete.

pertsonaia modu berezian landu du", azaldu du Barbarinek.

Urrezko Mendeko egile handienetako baten obra?

Gaur, 21:30ean Irurtzango kultur etxean, *La nave eta Limboescena* konpainiak *El pleito de Areusa o gallina vieja hace buen caldo* antzezlan eskainiko du

Irurtzango Antzerki Zikloari segida emanen dion antzezlanak aurkikuntza batean du abiapuntua: osorik ez dagoen aktore libreto bat. Lehen eta azken orriak janda edo lizunak hartuak ditu. Komedia bat da eta prosan idatzia dago. Iraun duten ataletako eszenek hainbesteko indar, talentu eta energia dute, ezen lotsa pitin bat ematen baitigu baieztatu

tzeak beharbada Urrezko Mendeko egile handienetako baten hasierako lan bat izan daitekeela.

Cervantesen gazteetako idatzi-zen bat? Paperaren analisia eta eskuizkribu motak ezetz diote. Lope gazte-gazte bat beharbada? Eskuizkribua aztertzen dugu berriro. Lehen orrialdean... ez al da L baten arrasto sendo bat ageri? G bat al da hor dagoen hori? Badirudi A baten muturra ikus daitekeela lerroaren amaieran. Baliteke jarraipena izatea, aitzitik parodia bat, *La Celestina* lanaren jarraipena. Pertsonaia ezagu-



nak, kaleko pertsonaiak, herri hizkera bizia dutenak. *Celestina* berria... Alferrik da. Inoiz ez dugu jakinen zein den komediarren egilea.

"Berezko nafar txistor tradizionala"



Utzubar industrialdea ARBIZU
Tel. 948 460 499
www.embutidosjuanflores.com



Igande honetan Arbizura hurbildu behar zareten bezero eta lagun guztioi, eskerrik asko eta ongi pasa Txistor Egunean. Elkar ikusiko gara!



www.chistorradenavarra.com



Nonerabili

GIXANE ESTETIZISTA

ALTSASU

%5eko deskontua zerbitzu guztietan eta produktuetan.

PINPILINPAUSA

ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

TEXARTU

IRUÑEA

Eskaintza kanpainaren arabera.

CLINKER

OLAZTI

Menuarekin kafea eta kopa doan.

SORKUNDE HARATEGIA

ALTSASU

50 €ko erosketetan etxeko produktoa doan

BERRIA EGUNKARIA

Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.

IKER KIROLAK

ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

% 20ko deskontua kontsul-tan.

BASOMUTUR

ALTSASU

Menuan eta kartan %6ko deskontua.

BILTOKI TABERNA

ALTSASU

Eguneko menuan, kafea doakoa. Karta menuan, kopa doakoa.

IÑAKI OINETAKOAK

ETXARRI ARANATZ

50€ko gastuarekin, %10eko deskontu-balea.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai



G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 95%	euria: 43%	euria: 68%	euria: 93%	euria: 40%	euria: 18%	euria: 15%
Min: 11 Max: 17	Min: 11 Max: 17	Min: 11 Max: 17	Min: 10 Max: 15	Min: 9 Max: 17	Min: 10 Max: 20	Min: 11 Max: 20

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	25.5	7	6
Etxarri A.	25	5	3.7
Altsasu	24	6	10.1
Aralar	17.5	6.1	10
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
15	23	31	6

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor
SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Lastaileko bazkide zozketa

LASTAILEKO SARIAK:

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza, Artaza kanpinerako deskontu balea eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.

2. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.

3. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.

4. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.

>> 11 galdera

Matias Rayo
San Donatoren magalean sortu du mahastia

Testua: Maialen Huarte Arano



1. Noiztik duzu mahastia Arbizun?

Duela zazpi urte hasi nintzen mahastiak landatzen. Bizilagun batek emandako eskeje baten bitartez sortu zitzaidan gaiaz gehiago jakiteko grina. San Donatoren magalean dut orain mahasti hori. Hasieran, erreka ertzean landatu nituen gutxi batzuk, orain, urrunago jarriak ditut.

2. Nola sortu zitzaizun ideia?

Bizilagunak eskejea ematearekin batera, interesa piztu zitzaidan mahastien munduarekin. Ikeretzen hasi nintzen gaiaz, interneten begiratu eta liburuetatik informazioa eskuratzen ere bai. Zaletasun asko izan ditut nire bizitzan eta aldatuz joan dira. Duela zazpi urte, hauxe hartu nuen denbora pasa moduko, eta horretan nabil orain.

3. Sakanako klima egokia al da mahasti bat izateko?

Ez da onena, baina, mahastiak kalitate eta kantitate gutxieneko bat emateko aukera badago. Hezetasun gehiegi du lurralde honek, eta haizea zakar dabilenean ere ez da egokiena mahastientzako. Dena dela, badira toki eguzkitsuak eta horietan landatuz gero, uzta politta jaso daiteke.

4. Zure mahastiaz gain, Sakanan ba al da besterik?

Nik ezagutzen dudanetik, bada bat. Irañetan, nahiko toki zabala eskainia diote mahastiari. Dena dela, badira hilabete batzuk zaindu ez dutena eta ez dakit dagoneko jarraituko ote duten mahas-

tia zaintzen. Esan beharra dago, informazio bilketan ari nintzela, dokumentu batean baino gehiagotan topatu dudala hemen inguruan, Sakanan, egon bazirela mahastiak duela 25-30 urte. Ez dute uzta ikaragarri handia ematen, baina, proposa da mahasti txiki-txikiarako.

5. Zer nolako mahatsa da mahastian duzuna?

Lau motatako ardoak egin izan ditut nik mahasti honek emandakotik: ardo txuria, txakolina, ardo beltza eta ardo gorria. Bakoitzak bere moduak ditu lantzeko, zaintzeko eta bukaeran zukua ateratzeko. Bakoitzak gero ere, emaitza bat du zapore aldetik.

6. Lan handia ematen al dizu mahastiak?

Mahastia zaindu egin behar da. Urte osoan gainean egon behar da, dedikazioa behar du. Urtaro guztietan egin behar izaten zaio zerbait: neguan kimatu, udaberrian loreak ongi hazten zaizkiola zaindu, udan eguraldiaren arabera tratamendua eman eta udazkenean da uzta jasotzeko garaia. Horren ondoren ardo egin behar da.

7. Zu bakarrik aritzen al zara?

Gustuko dudalako egiten dudana lana da eta normalean bakarrik aritzen naiz bai. Dena dela, badira garai batzuk lan mordo pila-tzen dena, batez ere mahatsak bildu behar direnean. Orduan laguntza izaten dut, familia izaten da horretarako.

8. Hezetasun handia izaten da

Sakanan. Horrek eraginik badu?

Hezetasunak ez dio onik egiten mahastiari. Horregatik, ni ibai hertzean hasi banintzen ere, berehala konturatu nintzen toki aproposa ez zela. Hezetasunak gaixotasunak sortzen dizkie mahatsen landareei eta behin eritasuna agertzen dela, ez dago ezer egite-rik. Horregatik, kontrolpean izan behar da eta eguraldiarekin tentuz ibili.

9. Prozesu guztia egiten duzue. Ardo ere zure esku.

Bai. Landatzen hasi nintzenean argi nuen prozesu guztia egitea lortu nahi nuela. Hori zen erronka. Esan eta egin. Tresna mordo dut ardo lanketarako. Askok ikasi dut. Mahatsa noiz jaso behar den jakiteko ere tresneria berezia dut. Behin jasotakoan, badakit nola bereizi mahatsa eta baditut behar adina edukiontzi guztiak pilatzeko.

10. Zuen helburua ez da ardo saltzea, etxerako egiten duzue.

Bai, noski. Etxerako beti ongi etortzen da. Mahasti txikia dut, hedadura gutxikoa. Ardo txuri eta txakolinarekin 125 botila ardo egin ahal izanen ditut eta ardo beltzarekin beste horrenbeste.

11. Ardo goxoa egiteko, zein da gakoak?

Dudarik gabe mahatsa ontzean dago gakoak. Oso garrantzitsua da unean-unean jasotzea. Ez lehenago ez beranduago. Askok kontrolatu behar da zenbateko azukrea duen mahatsak, horren arabera koka izanen delako gero alkohol kantitatea.

2015eko egutegi pertsonalizatuaren eskaintza

poltsikokoak

kolorez, 300 g papera, 84 x 55 mm
plastifikatzeak: +30 €

Kirroldegiko taberna

677 450 491 - ARBIZU

potsikoko bi orrikoak

84 x 110 mm, erdira tolestua

mahai gaineko egutegiak

Kolorez, 300 g paperean, piramide formatuan trokelatuta (210x100 mm).

Guaixe KOMUNIKAZIOA

Bierrieko bazkideentzat %5eko deskontua 948 564 275 argi@guaixe.net